# 2023KO APIRILAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

# ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 4 DE ABRIL DE 2023

| | |
|---|---|
| **LEKUA**: Beasaingo Udaletxea. | **LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain |
| **ARETOA**: Batzar Aretoa. | **LOCAL**: Salón de Plenos |
| **EGUNA**: Laua. | **DIA**: Cuatro |
| **HILABETEA**: Apirila. | **MES:** Abril. |
| **URTEA**: Bi mila eta hogeita hiru. | **AÑO**: Dos mil veintitrés |
| **HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko zazpiak | **HORA DE COMIENZO**: Diecinueve horas. |
| **BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa. | **CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria. |
| **DEIALDIA**: Lehena. | **CONVOCATORIA**: Primera. |
| **OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Hamazazpi (17) | **NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17) |

**UDALBURUA / PRESIDENTA**:
LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK / REUNIDOS/AS**:

<u>EAJ-PNV</u>

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA (EAJ-PNV)
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

<u>Beasaingo EH Bildu</u>

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

<u>Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak</u>

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**ETORRI GABEA**: AINARA AYESTARAN ALDASORO

**IDAZKARIA / SECRETARIA:**
Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak.

En la reunión también ha participado la interventora Lurdes Alegría Lasa.

Bapateko itzulpen lanetan Lurdes Auzmendi Aierbe ibili da “Traductores e intérpretes” S.A.ren enpresakoa.

Las labores de traducción simultanea las ha realizado Lurdes Auzmendi Aierbe de la empresa Traductores e Intérpretes S.A.

**1.- AURREKO AKTA**. 2023-03-02ko aktaren onespena.

Aipatutako aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako

**1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación del acta del 02-03-2023.

Tras dar cuenta del acta, al no proponerse modificaciones, se aprueba por unanimidad.

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

a.- KREDITU ALDAKETA. 2. KREDITU TRANSFERENTZIEN ESPEDIENTEA ETA DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETA. 2023TRFR0002

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordean tratatutakoa:

“*GAIA.- Kreditu Aldaketa. 2. Kreditu Transferentzien Espedientea eta Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa.*

*Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:*

*1.- 2. Kreditu transferentzien bidez 34.166,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:*

**2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE ANTOLAKUNTZA**:

a.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS. EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS 2 Y MODIFICACIÓN DE ANEXO DE SUBVENCIONES.

Se da a conocer la propuesta de Alcaldía tratada en la comisión de Organización

*ASUNTO.- Modificación de créditos. Expediente de Transferencia de créditos 2 y modificación de Anexo de Subvenciones.*
*Esta Alcaldía eleva al Pleno la siguiente Propuesta de Acuerdo:*

*1.- Aprobar inicialmente la modificación de cré dito que se financia mediante transferencia de cr édito por importe de 34.166,00 euros, según se especifica en el anexo, y que se resume por cap ítulos del siguiente modo:*

***GASTUEN GEHIKUNTZA***

| ***Kap.*** | ***Izena*** | ***Euro*** |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| 4 | *Transferentzia arruntak* | *34.166,00* |
| ***GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO*** | | *34.166,00* |

## *GASTUEN BAJAK*

| *Kap.* | *Izena* | *Euro* |
|---|---|---|
| 2<br>4 | *Gastu arrunt eta zerbitzuen erosketa*<br>*Transferentzia arruntak* | *13.500,00*<br>*20.666,00* |
| | ***FINANTZIAZIOA*** | *34.166,00* |
| | | |

*2.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hasiera batean onartzea, bertan espediente honen helburu ondorengo partidak handituz edota txertatuz: 0240.481.330.00.15, 0240.481.330.00.25, 0380.481.338.00.02, 0380.481.338.00.03, 0380.481.338.00.04.*

*2.- Aprobar inicialmente la modificación del Anexo de Subvenciones, modificando y/o incluyendo en el mismo las siguientes partidas objeto de este expediente: 0240.481.330.00.15, 0240.481.330.00.25, 0380.481.338.00.02, 0380.481.338.00.03, 0380.481.338.00.04.*

*3.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.*"

*3.- Someter a exposición pública por espacio de 15 días al efecto de presentar alegaciones, entendiéndose definitivamente aprobado si no se presentara reclamación alguna."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute:

Tras el turno de intervenciones, los asistentes manifiestan su conformidad con la propuesta:

Bozketa eginda, aho batez onartu da 2. kreditu transferentziaren espedientea eta dirulaguntzen eranskinaren aldaketa, alde batetik Goizeresi Txistularien Elkartean 13. 500 €ko partida izenduna jartzeko eta bestetik landa-auzoetako festetarako lehen aurrekontuan jarrita zegoen partida orokorra, auzo bakoitzeko festak ordaintzeko beharrezkoak diren kontusail zehatzak sortzeko.

Sometido a votación, se aprueba por unanimidad el expediente de transferencia de crédito nº 2 y la modificación del anexo de subvenciones para destinar a Goizeresi Txistularien Elkartea una partida nominativa de 13. 500 € y generar partidas concretas necesarias para el abono de las fiestas de cada barrio de la partida general que estaba presupuestada inicialmente para las fiestas de los barrios rurales.

b.- KREDITU ALDAKETA. KREDITU GEHIGARRIAK, 2. 2023CRAD0002

b.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS. CRÉDITOS ADICIONALES, 2.

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordean tratatutakoa:

Se da a conocer la propuesta de Alcaldía tratada en la comisión de Organización:

*"Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua egin beharra izanik eta hau finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek*

*Teniendo en cuenta la necesidad de realizar el gasto que se relaciona en la propuesta que se adjunta y la falta de crédito presupuestario para su financiación, esta Alcaldía eleva al Pleno la siguiente Propuesta de Acuerdo:*

*Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:*
*1.- 2. Kreditu gehikuntzen bidez 124.500,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:*

*1.- Aprobar inicialmente la modificación de crédito que se financia mediante incrementos de crédito por importe de 124.500,00 euros, según se especifica en el anexo, y que se resume por capítulos del siguiente modo:*

***GASTUEN GEHIKUNTZA***

| *Kap.* | *Izena* | *Euro* |
|---|---|---|
| 2<br>6 | *Gastu arrunt eta zerbitzuen erosketa*<br>*Inbertsio errealak* | *12.500,00*<br>*112.000,00* |
| ***GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO*** | | *124.500,00* |

***SARRERAK***

| *Kap.* | *Izena* | *Euro* |
|---|---|---|
| *8* | *Finantza aktiboak* | *124.500,00* |
| | ***FINANTZIAZIOA*** | *124.500,00* |

*2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”*

*2.- Someter dicho acuerdo a información pública para que durante el plazo de 15 días puedan formularse las alegaciones que procedan. En caso de no recibirse alegaciones, se entenderá definitivamente aprobada.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute:

Bozketa eginda, aho batez onartu da 2. kreditu gehigarrien espedientea. Kreditu gehikuntza hauek egingo dira:

- Hilerria berritzeko proiektua (32.000 €ko kreditu gehigarria) eta eraberritzea egikaritzeko (62.000 € kreditu gehigarria).
- Udal biltegirako fenwich-a estropeatu denez 18.000 €ko kreditu gehigarria.
- Lazkaibarko urbanizazio lanak bukatu diren honetan bertako itxiturak lehen baino konponketa gehiago egin beharra somatzen da. Beraz, 12.500 €ko kreditu gehigarria.

Tras el turno de intervenciones los asistentes manifiestan su acuerdo con la propuesta.

Sometido a votación se aprueba por unanimidad el expediente de créditos adicionales nº 2. Los incrementos de crédito serán los siguientes:

- Proyecto de reforma del cementerio (crédito adicional de 32.000 €) y ejecución de reforma (crédito adicional de 62.000 €).
- Crédito adicional por importe de 18.000 € para la avería de la fenwich del almacén municipal.
- Una vez finalizadas las obras de urbanización de Lazkaibar, el cierre del mismo obliga a realizar más reparaciones. Por tanto, un crédito adicional de 12.500 €.

c.- KONPROMISUZKO KREDITUEN ERANSKINA ALDATZEA. 2023EKBO0037

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordean tratatutakoa:

*GAIA.- Konpromisuzko kredituen eranskinaren aldaketa. Cita Alzehimer hitzarmena eta Dolarea parkeko ur jolasen mantenimentu*

*AURREKARIAK*

*1.- CITA ALZHEIMER FUNDAZIOArekin hitzarmen bat sinatzeko prozedura hasiko da. Hitzarmenaren xedea finantzatzeko, 50.000,00 euro emango dira urtean 2023ko eta 2024ko ekitaldietan. Bestalde, Dolarea Parkeko ur-jokoen mantentze-zerbitzua (17.000,00 €/ urte) kontratatzen hasiko da 2 urtez, eta beste 2 urtez luzatzeko aukera egongo da.*

*2.- 2023ko ekitaldiari dagokion kreditua erabilgarri dago baina ez da aurreikusi ondorengo ekitaldietarako beharko dena, beraz, beharrezkoa da hurrengo ekitaldietarako behar diren kredituak hornitzea, konpromiso-kredituen eranskinean txertatuta.*

*Hau guztia dela eta, Udalbatzari egiten zaio ondorengo*

*PROPOSAMENA*

*Lehenik.- Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kredituak txertatuz:*

*2.024 urtea:*

*0220.481.312.10.01: 50.000,00€*

*0390.210.337.30.01: 17.000,00 €"*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Gu puntu honetan abstenitu egingo gara, hasieratik Dolareako ur-jokoen instalazioekin zalantzak izan ditugulako, funtzionamendu eta jasangarritasunaren ikuspuntuari dagokionean eta mantenuak

c.- MODIFICACIÓN ANEXO DE CRÉDITOS DE COMPROMISO.

Se da a conocer la propuesta de Alcaldía tratada en la comisión de Organización.

*ASUNTO.- Modificación del Anexo de Créditos de Compromiso. Convenio Cita Alzheimer y contratación de mantenimiento juegos de agua Dolarea.*

*ANTECEDENTES*

*1.- Se va a iniciar el procedimiento para la firma de un convenio con CITA ALZHEIMER FUNDAZIOA con el objetivo de financiar el objeto del mismo con un importe de 50.000,00 euros anuales durante los ejercicicios 2023 y 2024 y por otro lado se va a iniciar la contratación del servicio de mantenimiento de los juegos de agua del Parque Dolarea (17.000,00 €/año) durante 2 anualidades con posibilidad de prórroga por otras 2 más.*

*2.- El crédito correspondiente al ejercicio 2.023 se encuentra disponible pero no se ha previsto el crédito correspondiente a ejercicios futuros, por lo que procede dotarlos mediante su incorporación al Anexo de Créditos de Compromiso.*

*Es por ello que, se somete la siguiente*

*PROPUESTA*

*a la consideración del Ayuntamiento Pleno:*

*Primero.- Modificar el Anexo de Créditos de Compromiso, incluyendo en el mismo los siguientes créditos de compromiso:*

*Año 2.024:*

*0220.481.312.10.01: 50.000,00€*

*0390.210.337.30.01: 17.000,00 €"*

En el turno de intervenciones los asistentes se muestran de acuerdo con la propuesta:

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Nosotros nos abstendremos en este punto, porque desde el principio hemos tenido dudas con las instalaciones de los juegos acuáticos de Dolarea, en lo que respecta al punto de vista de funcionamiento y

suposatzen duen gastu gehigarriarengatik. Cita Alzheimerena ondo ikusten dugu baina biak batera doanez, abstenitu egingo gara."

sostenibilidad, y por el gasto adicional que supone el mantenimiento. Lo de Cita Alzheimer lo vemos bien pero como ambas cosas van a la vez nos abstendremos."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Dolarea parkeko erabilerak justifikatzen du bertan egin behar diren mantenu lanen beharra, batik bat uraren kalitatea eta higienea bermatu behar ditugulako gure herritarrek eta batez ere haurrek jasaten dutelako eta ura momentu oro kalitate onekoa izan behar duelako. Jasangarritasunaren inguruan esan, bertako ura bueltaka dabilela eta ez dagoela ur-galtzerik. Jokoak jasangarriak dira baina kalitatea bermatzeko kontrolak egin behar dira eta horrek gastua suposatuko dio udalari urtero-urtero baina, gure ustez behintzat, erabilerak justifikatzen duena."

Sra Alcaldesa (EAJ-PNV): "El uso que se hace del parque de Dolarea justifica la necesidad de mantenimiento que hay que hacer en el mismo, sobre todo porque tenemos que garantizar la calidad e higiene del agua ya que los usuarios mayormente son niños y el agua tiene que ser de buena calidad en todo momento. Sobre la sostenibilidad decir que el agua está en un circuito y no hay pérdida de agua. Los juegos son sostenibles, pero para garantizar la calidad hay que realizar controles, lo que supondrá un gasto anual para el ayuntamiento, pero, en nuestra opinión, el uso lo justifica."

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Tras realizar la votación se obteniene el siguientes resultado:
Votos a favor: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin proposamena onartu egin da.

En consecuencia, se ha aprobado la propuesta con la mayoría absoluta.

d.- OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ETA GIPUZKOAKO UDALEN ARTEKO INFORMAZIO-TRUKERAKO ESPARRU-HITZARMENERA ATXIKITZEA. 2023EKBO0026

d.- ADHESIÓN AL CONVENIO MARCO PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS Y LOS AYUNTAMIENTOS DE GIPUZKOA.

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena, hau da:

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Organización:

"*AURREKARIAK*

*NISAEtik kanpo datu-mota berriak edo informazio-eskaera berriak sor daitezkeela aurreikusita, hala nola udalerriko higiezinen ondare-eskualdaketei buruzkoa eta kontu korrontearen zenbakia egiaztatzea, Foru Aldundiak esparru-hitzarmen bat onartu du, NISAE plataformaren bidez trukatutako informazio-hornidurak osatzeko.*

"ANTECEDENTES

*Ante la previsión de que puedan surgir nuevos tipos de datos o nuevas demandas de información al margen de NISAE, como es el caso de la relativa a las transmisiones patrimoniales de inmuebles del municipio y la verificación de número de cuenta corriente, la Diputación Foral ha aprobado un convenio marco que complemente los suministros de información intercambiados a través de la plataforma NISAE.*

*Udalak bere eskumenak erabiltzeko proposatutako informazio-trukean duen interesa kontuan hartuta, Udalbatzari egiten dio ondorengo*

*AKORDIO PROPOSAMENA*

*Ogasun eta Finantza Sailaren eta Gipuzkoako Udalen arteko informazio-trukerako esparru-hitzarmenera atxikitzeko eskatzea. Proposamen honekin batera doa hitzarmen hori eta berari dagozkion eranskinekin.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu dira, ondorengo hitzarmenari eta bere eranskinei Beasaingo Udala atxikitzea:

Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako udalen artean informazioa elkartrukatzeko esparru hitzarmena onartzen duen Foru Agindua.

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 141.1.c) artikuluan ezartzen du administrazio publikoen arteko lankidetza-betebeharra dela beste administrazio batzuei behar duten informazioa ematea, beren eskumenak egikaritzeko egiten duen jardueraren inguruan.

Lankidetza-betebehar hori garatzeko, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako udalek informazioa trukatzeko sistema egonkor eta elkarrekikoa ezarri dute.

Gaur egun, beharrezkoa da sistema hori eguneratzea 2014an sinatutako hitzarmenean aurreikusitako informazio- elkartrukaketak aldatu egin dira NISAE elkarreragingarritasun-plataforma abian jarri delako.

NISAEren funtzionamendua, 2018ko abenduaren 5ean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean, administrazio elektronikoko

*Teniendo en cuenta el interés del Ayuntamiento en el intercambio de información propuesto para el ejercicio de sus propias competencias, se presenta ante el Ayuntamiento Pleno la siguiente*

*PROPUESTA DE ACUERDO*

*Solicitar la adhesión al convenio marco para el intercambio de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los Ayuntamientos de Gipuzkoa que se adjunta a esta propuesta, junto con sus anexos.”*

En el turno de intervencines los asistentes se muestran de acuerdo con la propuesta.

Tras realizar la votación se aprueba por unanimidad la adhesión del Ayuntamiento de Beasain al convenio junto con sus anexos:

Orden Foral por la que se aprueba el convenio marco para el intercambio de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los ayuntamientos de Gipuzkoa

La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece en su artículo 141.1.c) como deber de colaboración entre Administraciones Públicas el de facilitar a otras Administraciones la información que precisen sobre la actividad que desarrollan en el ejercicio de sus propias competencias.

En desarrollo de ese deber de colaboración, el Departamento de Hacienda y Finanzas y los Ayuntamientos de Gipuzkoa han establecido un sistema de intercambio de información estable y recíproco.

A día de hoy, resulta necesario actualizar dicho sistema. Los intercambios de información previstos en el convenio firmado en 2014 se han visto modificados por la puesta en marcha de la plataforma de interoperabilidad NISAE.

El funcionamiento de NISAE se recoge en el convenio de colaboración firmado el 5 de diciembre de 2018 entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi

oinarrizko irtenbideak elkarri emateko.sinatutako lankidetza-hitzarmenean jasota dago.

Hitzarmenaren II. Eranskinean Administrazio Elektronikoko Zerbitzuen Katalogoa agertzen da eta 3. Atalean Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragintasunerako Nodoa (NISAE).

NISAE Euskadiko administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako plataforma da. Horren bidez, euskal administrazio publikoek paperezko ziurtagirien ordezko datuak eman diezazkiokete elkarri eta truke bera egin dezakete Estatuko gainerako administrazioekin.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal guztiak dagoeneko atxiki zaizkio NISAE plataformari, eta, gaur egun, Ogasun eta Finantza Departamentuak ematen duen informazio gehiena haren bidez lor daiteke elkarreraginean. Hala eta guztiz ere, informazio batzuk ezin dira eman, edo oraindik ez dago eskuragarri plataforma horretan. Hala, udalerriko higiezinen ondare-eskualdaketei eta kontu korrontearen zenbakiaren egiaztapenari buruzkoa.

Egoera horretan, eta NISAEtik kanpo datu- mota berriak edo informazio-eskaera berriak sor daitezkeela aurreikusten denez, bidezkoa da departamentuaren eta udalen arteko hitzarmen berri bat onartzea, indarrean dagoena ordezkatuz, NISAE plataformaren bidez trukatutako informazio- hornidurak osatzeko.

Horretarako, esparru hitzarmen bat diseinatu da, eta udal bakoitza atxiki ahal izango zaio. Horrela, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen 23/2010 Foru Dekretuaren printzipioak errespetatzen dira, eta, aldi berean, esparru hitzarmenaren eranskinetan jasotzen diren informazio

y la Diputación Foral de Gipuzkoa, para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica.

En el Anexo II del convenio se recoge el catálogo de servicios de administración electrónica y en el apartado 3 se hace referencia al Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi (NISAE).

NISAE es la plataforma de intermediación de datos de las Administraciones Públicas de Euskadi que permite el intercambio de datos que sustituyen a los certificados en papel entre las Administraciones Públicas Vascas y, entre estas y el resto de administraciones del estado.

La totalidad de los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa ya se han adherido a la plataforma NISAE, y actualmente, la mayoría de la información que suministra el Departamento de Hacienda y Finanzas y consumen los ayuntamientos se puede obtener interoperablemente mediante la misma.

No obstante, hay cierta información que no puede proveerse o no está aún disponible en dicha plataforma. Así, la relativa a las transmisiones patrimoniales de inmuebles del municipio y la verificación de número de cuenta corriente.

En esta situación, y ante la previsión de que puedan surgir nuevos tipos de datos o nuevas demandas de información al margen de NISAE, procede aprobar un nuevo convenio entre el departamento y los ayuntamientos que, en sustitución del vigente, complemente los suministros de información intercambiados a través de la plataforma NISAE.

A tal fin, se ha diseñado un convenio marco al que podrá adherirse cada ayuntamiento. De esta manera se respetan los principios del Decreto Foral 23/2010 por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral y, al mismo tiempo, se consigue una forma rápida y eficiente de

elkartrukaketak formalizatzeko modu azkar eta eraginkor bat lortzen da.
Honenbestez, hau

EBAZTEN DUT

1. artikulua.- Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako udalek informazioa elkartrukatzeko esparru hitzarmena onartzea.
Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako udalen artean informazioa elkartrukatzeko esparru hitzarmena onartu da.
Esparru hitzarmen horren testua foru agindu honen A eranskin gisa ageri da.

2. artikulua.- Esparru hitzarmenari atxikitzea.
Gipuzkoako udalak foru agindu honetan onartutako esparru hitzarmenari atxikitzeko, foru agindu honen B eranskinean agertzen den atxikipen agiria bete beharko da. Dokumentu hori Ogasun eta Finantza Departamentura igorriko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan dagoen Erregistroak Interkonektatzeko Sistemaren bidez. (SIR).

Azken xedapena
Foru Agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera atxikitu ahal izango dira udalak esparru hitzarmen honetara.

formalizar los intercambios de información que se recogen en los anexos al convenio marco.
En su virtud,

RESUELVO

Artículo 1.- Aprobar el convenio marco para el intercambio de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los ayuntamientos de Gipuzkoa.
Se aprueba el convenio marco para el intercambio de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los ayuntamientos de Gipuzkoa.
El texto de dicho convenio marco figura como anexo A de la presente Orden Foral.

Artículo 2.- Adhesión al convenio marco.
La adhesión por parte de los ayuntamientos de Gipuzkoa al convenio marco aprobado en esta orden foral se realizará cumplimentando el documento de adhesión que figura como anexo B de la presente Orden Foral. Dicho documento se remitirá al Departamento de Hacienda y Finanzas a través del Sistema de Interconexión de Registros (SIR) ubicado en la sede electró nica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Disposición final
Los ayuntamientos se podrán adherir al presente convenio marco a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden Foral en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

.ASKIDEAK ETA BAIMENDUTAKO PERTSONAK IZENDATZEA

1 eranskina: KONTU KORRONTE ZENBAKIA EGIAZTATZEA

-Udalaren aldeko solaskidea.
Izen-deiturak: xxxxxx
Lanpostua. Diruzaina
e-posta: xxxxx

2. eranskina: ESKRITURETARA SARBIDEA

**2.a.** Emandako informazioan sartzeko

DESIGNACIÓN INTERLOCUTORES Y PERSONAS AUTORIZADAS

Anexo 1.- VERIFICACIÓN DEL NÚMERO DE CUENTA CORRIENTE

-Interlocutor/a por parte del Ayuntamiento:
Nombre y apellidos:xxxxxx
Puesto de trabajo: Tesorera
E-mail: xxxxx

Anexo 2: ACCESO A ESCRITURAS

baimendutako pertsonak (2 gutxienez, arduraduna ez dena).

(1 )Izen-deiturak: xxxx
Lanpostua: Diruzaina
e-posta: xxxx

(2) Izen-deiturak: xxxx
Lanpostua. Zergabilketako tekinaria
e-posta. xxxxx

(3)…
**2.b.** Udalaren aldeko solaskidea
Izen-deiturak: xxxx
Lanpostua. Diruzaina
e-posta: xxx

Udalak, alkateak edo beste organo baimendu batek elektronikoki sinatuko duen dokumentu hau Ogasun eta Finantza Departamentura igorriko du SIR (DIR LA0016043) bitartez.

Datu hauek edozein unetan aldatu ahal izango dira bide beretik.

1.- Eranskina. Kontu korronte zenbakia egiaztatzea

• Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa.
Izen-deiturak: xxxxx
Lanpostua: Antolaketako eta giza baliabideetako teknikaria
e-posta: xxxxx

2.- Eranskina (D-6). Udalerrian dauden higiezinen OE eta EJD operazioen datu eta notaritzako eskrituretara sarbidea, Hiri- Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga eta beste udal zerga batzuk kudeatu eta biltze aldera.

• Erabiltzaileen kudeaketaz eta utzitako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa
Izen-deiturak: xxxxxx
Lanpostua: Antolaketako eta giza baliabideetako teknikaria
posta: ******* “

2.a. Personas autorizadas para acceder a la información suministrada (2 mínimo; que no coincidan con el responsable)

(1)Nombre y apellidos: xxxx
Puesto de trabajo: Tesorera
E-mail: xxx

(2)Nombre y apellidos: xxxxx
Puesto de trabajo. Técnico de Recaudación
E-mail. Xxxx

(3)...
2.b. Interlocutor/a por parte del Ayuntamiento.
Nombre y apellidos xxxxx
Puesto de trabajo: Tesorera
E-mail: xxxx

El Ayuntamiento remitirá este documento, firmado por el/la Alcalde/sa u otro órgano autorizado al Departamento de Hacienda y Finanzas a través del SIR (DIR LA0016043).

Estos datos podrán ser modificados en cualquier momento por la misma vía.

Anexo 1. Verificación del número de cuenta corriente

- Órgano responsable de la gestión de usuarios/as y de la seguridad y del control de la información cedida.

Nombre y apellidos: xxx
Puesto de trabajo: técnico de organización y recursos humanos.
e-maila: xxx

Anexo 2. Acceso a datos y escrituras notariales de operaciones de TP y AJD relativas a inmuebles radicados en el municipio, para la gestión y recaudación del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y otros tributos municipales

- Órgano responsable de la gestión de usuarios/as y de la seguridad y del control de la información cedida

Nombre y apellidos: xxxx
Puesto de trabajo: técnico de organización y recursos humanos.
e-mail: xxxxx

e.- BEASAINGO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, S.A. (EJIE)REN ARTEKO LANKIDETZA- HITZARMENA KZGUNEA ZENTROEN IREKIERA, ERABILERA ETA APROBETXAMENDUA ARAUTZEKO, KZ CIUDADAN@ PROGRAMAREN ESPARRUAN. 2023PEBO0052

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena, hots:

"*AURREKINAK*

*LEHENENGO.- 2001eko apirilaren 10ean Gobernu- kontseiluak "Konekta Zaitez Ciudadan@" programa "Euskadi Informazioaren Gizartean" planean sartzea onetsi zuela. Akordio horren bidez, "Konekta Zaitez Ciudadan@" programaren kudeaketa eta jarraipena egitea Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Zuzendaritzaren esku uzten da, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea SA (EJIE)ri programa burutzeko beharrezkoak diren adina zeregin informatiko esleitzeko ahalmena ematen dio.*

*BIGARREN.- KZguneen euskal sare publiko hori Eusko Jaurlaritzako Informazio eta Komunikazio Teknologien Zuzendaritza beraren mende dago oraindik ere, eta zuzendaritza horrek urtero "Konekta Zaitez" programa, aurrerantzean KZgunea, garatzea Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea S.A. (EJIE)ren esku uzten du, eta udalekin zentroak irekitzeko eta kudeatzeko beharrezko akordioak formalizatzea.*

*HIRUGARREN.- Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) 2002eko azaroaren 30aninformazioaren gizartera sartu ahal izateko zentroen sare bat ("Konekta Zaitez Ciudadan@" programa) martxan jartzea ahalbidetuko zuen akordioa sinatu dutela lankidetza marko bat ezartzeko.*

e.- CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y LA SOCIEDAD VASCA DE INFORMÁTICA DEL GOBIERNO VASCO EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, S.A. (EJIE) PARA REGULAR LA APERTURA, UTILIZACIÓN Y APROVECHAMIENTO DE CENTROS KZGUNEA DENTRO DEL MARCO DEL PROGRAMA KZ CIUDADAN@.

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Organización:

*"ANTECEDENTES*

*PRIMERO.- El Consejo de Gobierno con fecha 10 de abril de 2001 acordó incluir el Programa "Konekta Zaitez Ciudadan@" en el Plan "Euskadi en la Sociedad de la Información" (PESI). Mediante dicho acuerdo, se atribuye la gestión y el seguimiento del programa "Konekta Zaitez Ciudadan@" a la Dirección de Tecnologías de la Información y la Comunicación y le faculta para atribuir a la Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. (EJIE) cuantas tareas de contenido informático sean necesarias para el desarrollo del programa.*

*SEGUNDO.- dicha Red pública vasca de centros KZgunea sigue dependiendo de la misma Dirección actualmente denominada Dirección de Tecnologías de la Información y la Comunicación del Gobierno Vasco y ésta encomienda anualmente a la Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. (EJIE) el desarrollo del Programa "Konekta Zaitez Ciudadan@", en adelante KZgunea, así como formalizar con los ayuntamientos los acuerdos pertinentes para la apertura y gestión de los centros.*

*TERCERO.- el Gobierno Vasco y la Asociación de Municipios Vascos- Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL) han firmado un acuerdo el 30 de noviembre de 2022 con objeto de establecer el marco de colaboración para la puesta en marcha de una red de centros de acceso a la Sociedad de la Información (Programa "Konekta Zaitez Ciudadan@").*

*CUARTO.- en la actualidad, el proyecto KZgunea se sitúa en el marco de la Estrategia*

*LAUGARREN.- Gaur egun, KZgunea proiektua Euskadi Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025 – EEDE2025- esparruan kokatzen del, teknologia pertsonen zerbitzura jarri eta hurbiltzeko, gizarte digital ireki, demokratiko eta iraunkor bat lortzeko funtsezko pieza delarik.. Modu estrategikoan, integralean eta diziplina anitzekon, IKTen abantailak aprobetxatu nahi dira gizarte- orientazioa duten bi helburu lortzeko: lehiakortasuna hobetzea eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea. Ildo horretan, KZgunea eta haren ezarpen zabala helburu horiek lortzeko ekintzak ezartzea ahalbidetzen duen aliatu handia bilakatzen da.*

*BOSGARREN.- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza ados dago Beasain "Konekta Zaitez Ciudadan@" programari atxikitzearekin. Programa hori 1. eranskinean adierazitako helbidean dagoen espazioan garatuko da, erabilera eta zerbitzu publikorako bideratua.*

*SEIGARRENA.- 2018ko uztailaren 3an EAEko KZgune zentroetan erabiltzaileei arreta ematen diharduten langileen aurkako jarrera oldarkorrak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko plan bat onartu zuen EJIEk. Beasainko Udalak kontuan izan nahi du plan hori, zerbitzu hori eskaintzen den espazioaren erabilera-baldintzak berritu, eguneratu eta hitzarmen bakarrean jaso behar dira.*

*ZAZPIGARRENA.- Tokiko araudiek xedatzen dutenez, "jabari publikoko ondasunak erabiltzean, erabilera pribatibotzat joko da jabari publikoaren zati bat okupatzea, gainerako interesdunek erabiltzea mugatu edo galarazten duelarik". Orobat zehazten du jabari publikoko ondasunen erabilera administrazio-emakidari lotuta egongo dela. Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak emakiden esleipen erregimena arautzen du 93. eta 94. artikuluetan. Bertan jasotzen denez, jabari publikoaren emakidak lehia aske bidez emango badira ere, zuzenean ere eman ahalko dira, lege beraren 137.4 artikuluan aurreikusitako egoeretan, eta artikulu horretako a) atalak dioenez, hartzailea beste administrazio publiko bat bada, zuzenean esleitzeko aukera egongo da.*

*Horrenbestez, aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesgarritzat jotzen duenez,*

*para la Transformación Digital de Euskadi 2025 -ETDE2025- y es pieza clave para acercar y poner la tecnología al servicio de las personas para conseguir una sociedad digital abierta, democrática y sostenible. De manera estratégica, integral y multidisciplinar, se pretende aprovechar las ventajas de las TIC para conseguir dos objetivos con orientación social: mejorar la competitividad y mejorar el bienestar y la calidad de vida de la ciudadanía. En este sentido, KZgunea y su extensa implantación, se convierte en el gran aliado que permite implementar acciones para lograr estos objetivos.*

*QUINTO.- la Dirección de Tecnologías de la Información y la Comunicación está conforme con la adhesión al "Programa "Konekta Zaitez Ciudadan@" del Ayuntamiento de Beasain. Programa que se desarrollará en el espacio situado en la dirección que se indica en el Anexo 1, destinado al uso y servicio público.*

*SEXTO.- el 3 de julio de 2018, EJIE aprobó el plan de prevención y actuación ante actitudes violentas hacia el personal de atención al público de los centros KZgunea de la CAE. El Ayuntamiento de Beasain quiere tomar en consideración este plan, que procede renovar, actualizar y unificar en un único convenio las condiciones del uso del espacio donde se presta este servicio.*

*SEPTIMO.- la normativa local establece que "en la utilización de los bienes de dominio público se considerará uso privativo, el constituido por la ocupación de una porción del dominio público, de modo que limite o excluya su utilización por los demás interesados", precisando que el uso de los bienes de dominio público estará sujeto a concesión administrativa. La ley 33/2003, de 3 de noviembre de Patrimonio de las Administraciones Públicas regula con carácter básico en los arts. 93 y 94 el régimen de adjudicación de las concesiones demaniales estableciendo que las concesiones se efectuarán en régimen de concurrencia, si bien podrá acordarse el otorgamiento directo en los supuestos previstos en el art. 137.4 de la misma ley, estableciendo el apartado a) la posibilidad de adjudicación directa cuando el adquirente sea otra Administración pública.*

*Considerando de interés de este Ayuntamiento el contenido del citado Convenio, la Comisión de*

*Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari honako hau aurkezten du iritzia eman dezan*

*Organización somete a la consideración del Ayuntamiento pleno la siguiente*

*PROPOSAMENA*

*PROPUESTA*

*LEHENENGOA.- Beasaingo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. (EJIE)ren arteko lankidetza- hitzarmena kzgunea zentroen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, kz ciudadan@ programaren esparruan hitzarmena sinatzea.*

*PRIMERO.- Suscribir convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Beasain y la Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. (EJIE) para regular la apertura, utilización y aprovechamiento de centros kzgunea dentro del marco del programa kz ciudadan@.*

*BIGARRENA: Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Beasaingo Udalaren izenean eta ordezkaritzan sina dezan.*

*SEGUNDO: Facultar a la Alcaldesa-Presidenta para suscribir dicho Convenio, en nombre y representación del Ayuntamiento de Beasain.*

*HIRUGARRENA: Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez.*"

*TERCERO: Comunicar Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea este acuerdo, mediante la certificación expedida del mismo."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak azaldu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas vascos-Euskal Sozialistak): "Estamos de acuerdo con el convenio porque siempre hemos valorado positivamente la tarea que se lleva a cabo por Kz gunea, sobre todo para la mejora de los usos de las Tics, para eliminar las barreras de brecha tecnológica, etc. Creemos que es un buen trabajo con miras a la ciudadanía. El servicio también se resintió por la crisis de la COVID-19, se cerró y se ha vuelto a abrir porque hubo varias reclamaciones y lo que no sabemos es si se ha abierto compartiendo horarios con otros municipios o no, ya que en el convenio eso no se recoge."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Ordutegiarena ez da hitzarmenean jasotzekoa. Dena dela kontuan hartuko da gure herritarrei zerbitzua ahalik eta osoena eta zabalena ematea. Azken aldian, oker ez banago, langile batek ematen ditu Ordizia eta Beasaingo zerbitzuak. Goizez herri batean eta arratsaldez bestean eta aldatzen joaten da. Beraz, ordutegiarena hitzarmenetik kanpo geratzen da baina landu egin behar dugu Eusko Jaurlaritzarekin, denon mesederako izateko."

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Lo del horario no se incluye en el convenio. En todo caso, se tendrá en cuenta la prestación de un servicio a nuestra ciudadanía lo más completo y amplio posible. Últimamente, si no me equivoco, los servicios de Ordizia y Beasain los presta el mismo trabajador. Por la mañana en un pueblo y por la tarde en el otro y va cambiando. Por lo tanto, lo del horario queda fuera del convenio, pero tenemos que trabajarlo con el Gobierno Vasco para que nos beneficie a todos."

Hasier Agirre Elkoreberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Batzorde baten ere komentatu zen. Hitzarmenak udalari eskumena ematen dio Kz gunearen antolaketarako. Batzordean Kz gunearen datuak pasatu zitzaizkigun eta ikusten duguna da marjina dagoela Kz gunea gauza gehiagotarako

Hasier Agirre Elkoreberezibar (Beasaingo EH Bildu): "También se comentó en una comisión. El convenio faculta al Ayuntamiento para la organización del KZgunea. En la Comisión se nos pasaron los datos de KZgunea y lo que vemos es que hay margen para utilizar el KZgunea para otros finez. Por ello, propusimos

erabiltzeko. Hori dela eta proposatu genuen beste erakunde batzuekin (EPA, ikastetxeak,…), lankidetza sustatzea, Kz guneari erabilera anitzagoa emateko eta zerbitzua zabaltzeko.”

fomentar la colaboración con otras entidades (EPA, centros educativos, etc.) para dar un uso más variado al KZgunea y ampliar el servicio.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bai, zerbitzua zabaldu eta gure gain dauden pantaila eta tresna digitalak jendearen esku jarri. Jakiin badakigu Kz gunea Ezkiaga auzoan dagoela baina Kz gunean gaurko egunean zein zerbitzu eskaintzen dituzten herritar askok ez dakite. Zentzu horretan publizitatea egitea ere egokia ikusten dut.”

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “Sí, abrir el servicio y poner a disposición del público las pantallas y herramientas digitales que están a nuestro cargo. Sabemos que el KZgunea se encuentra en el barrio de Ezkiaga, pero hay muchos vecinos que no saben qué servicios se ofrecen actualmente en Kzgunea. También veo oportuno hacer publicidad en ese sentido.”

Bozketa eginda, aho batez ondorengo hitzarmena onartu da:

Sometida a votación se aprueba el convenio por unanimidad:

“BEASAIN UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, S.A. (EJIE)REN ARTEKO LANKIDETZA- HITZARMENA KZGUNEA ZENTROEN IREKIERA, ERABILERA ETA APROBETXAMENDUA ARAUTZEKO, KZ CIUDADAN@ PROGRAMAREN ESPARRUAN

“CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y LA SOCIEDAD VASCA DE INFORMÁTICA DEL GOBIERNO VASCO EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, S.A. (EJIE) PARA REGULAR LA APERTURA, UTILIZACIÓN Y APROVECHAMIENTO DE CENTROS KZGUNEA DENTRO DEL MARCO DEL PROGRAMA KZ CIUDADAN@

Beasain, sinadura elektronikoaren datan

Beasain, a fecha de la firma electrónica

BILDURIK

REUNIDOS

Alde batetik, LEIRE ARTOLA UGALDE Alkate jauna/andrea, Beasainko Udalaren ordezkari gisa.,
Bestetik, ASIER SÁEZ DE VICUÑA ORTUETA jauna, EJIE S.A.ko zuzendari nagusia, enpresa hori ordezkatuz,

De una parte, D/Dña LEIRE ARTOLA UGALDE Alcalde/sa y en representación del Ayuntamiento de Beasain ,

Y de otra, Don ASIER SÁEZ DE VICUÑA ORTUETA, Director General de EJIE, S.A. y en representación de la misma,

HAUXE ADIERAZTEN DUTE
1.- 2001eko apirilaren 10ean Gobernu-kontseiluak “Konekta Zaitez Ciudadan@” programa “Euskadi Informazioaren Gizartean” planean sartzea onetsi zuela. Akordio horren bidez, "Konekta Zaitez Ciudadan@" programaren kudeaketa eta jarraipena egitea Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Zuzendaritzaren esku uzten da, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea SA (EJIE)ri programa burutzeko beharrezkoak diren adina zeregin informatiko esleitzeko ahalmena ematen diolarik.

EXPONEN
1º Que el Consejo de Gobierno con fecha 10 de abril de 2001 acordó incluir el Programa “Konekta Zaitez Ciudadan@” en el Plan “Euskadi en la Sociedad de la Información” (PESI). Mediante dicho acuerdo, se atribuye la gestión y el seguimiento del programa "Konekta Zaitez Ciudadan@" a la Dirección de Tecnologías de la Información y la Comunicación y le faculta para atribuir a la Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. (EJIE) cuantas tareas

2.- KZguneen euskal sare publiko hori Eusko Jaurlaritzako Informazio eta Komunikazio Teknologien Zuzendaritza beraren mende dago oraindik ere, eta zuzendaritza horrek urtero “Konekta Zaitez” programa, aurrerantzean
KZgunea, garatzea Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea S.A. (EJIE)ren esku uzten du, eta udalekin zentroak irekitzeko eta kudeatzeko beharrezko akordioak formalizatzea.

3.- Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) 2002eko azaroaren 30aninformazioaren gizartera sartu ahal izateko zentroen sare bat (“Konekta Zaitez Ciudadan@” programa) martxan jartzea ahalbidetuko zuen akordioa sinatu dutela lankidetza marko bat ezartzeko.

4.- Gaur egun, KZgunea proiektua Euskadi Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025 –EEDE2025- esparruan kokatzen del, teknologia pertsonen zerbitzura jarri eta hurbiltzeko, gizarte digital ireki, demokratiko eta iraunkor bat lortzeko funtsezko pieza delarik.. Modu estrategikoan, integralean eta diziplina anitzekon, IKTen abantailak aprobetxatu nahi dira gizarte-orientazioa duten bi helburu lortzeko: lehiakortasuna hobetzea eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea. Ildo horretan, KZgunea eta haren ezarpen zabala helburu horiek lortzeko ekintzak ezartzea ahalbidetzen duen aliatu handia bilakatzen da.

5.- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza ados dago Beasain "Konekta Zaitez Ciudadan@" programari atxikitzearekin. Programa hori 1. eranskinean adierazitako helbidean dagoen espazioan garatuko da, erabilera eta zerbitzu publikorako bideratua.

6.- 2018ko uztailaren 3an EAEko KZgune zentroetan erabiltzaileei arreta ematen diharduten langileen aurkako jarrera oldarkorrak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko plan bat onartu zuen EJIEk. Beasainko Udalak kontuan izan nahi du plan hori, zerbitzu hori eskaintzen den espazioaren erabilera-baldintzak berritu, eguneratu eta hitzarmen bakarrean jaso behar direlarik., eta

de contenido informático sean necesarias para el desarrollo del programa.
2º Que dicha Red pública vasca de centros KZgunea sigue dependiendo de la misma Dirección actualmente denominada Dirección de Tecnologías de la Información y la Comunicación del Gobierno Vasco y ésta encomienda anualmente a la Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, S.A. (EJIE) el desarrollo del Programa “Konekta Zaitez Ciudadan@”, en adelante KZgunea, así como formalizar con los ayuntamientos los acuerdos pertinentes para la apertura y gestión de los centros.
3º Que el Gobierno Vasco y la Asociación de Municipios Vascos- Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL) han firmado un acuerdo el 30 de noviembre de 2022 con objeto de establecer el marco de colaboración para la puesta en marcha de una red de centros de acceso a la Sociedad de la Información (Programa “Konekta Zaitez Ciudadan@”).
4º Que, en la actualidad, el proyecto KZgunea se sitúa en el marco de la Estrategia para la Transformación Digital de Euskadi 2025 -ETDE2025- y es pieza clave para acercar y poner la tecnología al servicio de las personas para conseguir una sociedad digital abierta, democrática y sostenible. De manera estratégica, integral y multidisciplinar, se pretende aprovechar las ventajas de las TIC para conseguir dos objetivos con orientación social: mejorar la competitividad y mejorar el bienestar y la calidad de vida de la ciudadanía. En este sentido, KZgunea y su extensa implantación, se convierte en el gran aliado que permite implementar acciones para lograr estos objetivos.

5º Que la Dirección de Tecnologías de la Información y la Comunicación está conforme con la adhesión al "Programa "Konekta Zaitez Ciudadan@" del Ayuntamiento de Beasain. Programa que se desarrollará en el espacio situado en la dirección que se indica en el Anexo 1, destinado al uso y servicio público.

6º Que el 3 de julio de 2018, EJIE aprobó el plan de prevención y actuación ante actitudes violentas hacia el personal de atención al público de los centros KZgunea de la CAE. El Ayuntamiento de Beasain quiere tomar en consideración este plan, que procede renovar, actualizar y unificar en un único convenio las

7.- Tokiko araudiek xedatzen dutenez, “jabari publikoko ondasunak erabiltzean, erabilera pribatibotzat joko da jabari publikoaren zati bat okupatzea, gainerako interesdunek erabiltzea mugatu edo galarazten duelarik”. Orobat zehazten du jabari publikoko ondasunen erabilera administrazio-emakidari lotuta egongo dela. Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak emakiden esleipen erregimena arautzen du 93. eta 94. artikuluetan. Bertan jasotzen denez, jabari publikoaren emakidak lehia aske bidez emango badira ere, zuzenean ere eman ahalko dira, lege beraren 137.4 artikuluan aurreikusitako egoeretan, eta artikulu horretako a) atalak dioenez, hartzailea beste administrazio publiko bat bada, zuzenean esleitzeko aukera egongo da.

Hori kontuan izanik, bi aldeei komeni zaie lankidetza-hitzarmen hau sinatzea, horrek EJIEri 1. eranskinean adierazitako helbidean adierazitako gela bat zuzenean emateko bide emango baitu, herri administrazioen arteko lankidetza arduratsua lortzea helburu, eta, horrenbestez, egoki da Beasainko Udalak KZgunea ireki, erabili eta aprobetxatzen laguntzea, bai eta KZgunean erabiltzaileei arreta ematen diharduten langileen aurkako jarrera oldarkorrak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko plana kontuan hartzea ere, honako klausula hauei jarraiki:

KLAUSULAK

LEHENA. XEDEA

Hitzarmen honen helburua EJIEren eta Beasainko Udalaren arteko lankidetza-harremanak ezartzea da, 1. eranskinean adierazitako helbidean kokatutako KZgunea ireki, erabili eta aprobetxatzeko prestakuntza-programak eta KZguneak eskaintzen dituen gainerako zerbitzuak emateko eta, horrenbestez, Kurtzio Kultur Etxean dagoen gelaren jabari publikoko emakida arautzea.

BIGARRENA. LORTU NAHI DIREN HELBURU KOMUNAK

Hitzarmen honetako aldeek adostu duten lankidetzak helburu partikular –zentro bakoitzarenak– eta orokor –KZgunea programarenak– hauek izango ditu:

condiciones del uso del espacio donde se presta este servicio.

7º Que la normativa local establece que “en la utilización de los bienes de dominio público se considerará uso privativo, el constituido por la ocupación de una porción del dominio público, de modo que limite o excluya su utilización por los demás interesados”, precisando que el uso de los bienes de dominio público estará sujeto a concesión administrativa. La ley 33/2003, de 3 de noviembre de Patrimonio de las Administraciones Públicas regula con carácter básico en los arts. 93 y 94 el régimen de adjudicación de las concesiones demaniales estableciendo que las concesiones se efectuarán en régimen de concurrencia, si bien podrá acordarse el otorgamiento directo en los supuestos previstos en el art. 137.4 de la misma ley, estableciendo el apartado a) la posibilidad de adjudicación directa cuando el adquirente sea otra Administración pública.

De conformidad con todo lo cual interesa a las partes suscribir este convenio de colaboración que, persiguiendo la cooperación responsable entre las Administraciones Públicas, haga posible la concesión directa del uso a EJIE del aula en la dirección indicada en el Anexo 1, y como consecuencia la procedencia de colaborar en la apertura, utilización, aprovechamiento del centro KZgunea en el Ayuntamiento de Beasain, así como la toma en consideración del plan de prevención y actuación ante actitudes violentas hacia el personal de atención al público de los centros KZGunea de la CAE en base a las siguientes:

CLÁUSULAS

PRIMERA. OBJETO

El presente Convenio tiene por objeto la de establecer relaciones de colaboración entre EJIE y el Ayuntamiento de Beasain con el fin de abrir, utilizar y aprovechar el centro KZgunea localizado en la dirección indicada en el Anexo 1, en el que se desarrollarán programas de formación y el resto de servicios ofrecidos por KZgunea, así como la consecuente concesión demanial de este espacio.

SEGUNDA. OBJETIVOS COMUNES A ALCANZAR

• KZgunearen Zerbitzuen Kartan zehaztutakoei jarraikiz zabaltzea KZgunea zentroa. Zentroaren egutegia KZgune guztientzako egindako egutegi orokorrera egokituko da.
• Udalerriko herritarrei teknologia berrien inguruko prestakuntza libre, unibertsal eta egituratua ematea. Antolakuntza, laguntzaileak hautatzea eta baliabideen eskuragarritasuna zentroko hezitzaileen ardura izango dira
• Zerbitzuak ematen direla bermatzea, bai KZgunea programakoak bai udalak zentro horretan ematen dituenak zein hitzarmeneko aldeekin lankidetzan diharduten erakundeek ematen dituztenak, hala, zentroaren kalitate-irudia indartzeko.
• Ahalik eta jende gehienengana heltzea, bai udalerri mailan, bai oro har, hiru lurralde historikoetan.
• Bi aldeen interesekoa den eta kostu ekonomikorik ez dakarren beste edozein, gastu hori onartzen dutenean izan ezik.

HIRUGARRENA. ZERBITZUAK EMATEKO BALDINTZAK:
• Lan egutegia: KZguneak lan egutegi estandar bat eratuko du bere zentro guztientzat, aurreko urteko azken hilabetean egin eta udaletxera bidaliko dena. Lan egutegi horrek beti Gobernuak onartutako estatu, autonomia erkidego, probintzia eta udal mailako jaiegunak hartuko ditu kontuan. Gainera, oro har, abuztuan jai hartuko dute KZguneek. Lan egutegia udalei jakinaraziko zaie Kudeaketa Zentroak onartu bezain laster. Edozein kasutan ere, lan-egutegi hori KZgunea kokatuta dagoen espazioa irekitzeko egun eta ordutegietara egokitu beharko da.

• Lokalaren irekitzeko orduak: ahal denean, hezitzaileei eta/edo KZguneari loturiko programetako begiraleei KZguneko prestakuntza- zerbitzuak eta kanpoko prestakuntza emateko beharrezkoak diren ordutegietan zentroen irekiera ahalik eta gehien erraztuko zaie.

• Lankidetza promozioan: ahal den heinean, KZgunean eskaintzen diren zerbitzuen promozioan lagunduko du. Lankidetza horrek

La colaboración consensuada entre las partes del presente convenio tratará de alcanzar los siguientes objetivos particulares del centro en cuestión, como globales del Programa KZgunea:
• Abrir el centro KZgunea conforme a lo estipulado en la Carta de Servicios de KZgunea. El calendario de el/los centro(s) se adaptará al calendario general de todos los centros KZgunea.
• Formar a los/as ciudadanos/as del Municipio en las nuevas tecnologías de forma libre, universal y de manera estructurada. La organización, selección de asistentes y disponibilidad de recursos correrán a cargo del personal educador del centro.
• Asegurar la prestación del servicio, tanto del propio del Programa KZgunea, como los que el ayuntamiento proporcione en dicho centro, así como los prestados por entes colaboradores con las partes del convenio, potenciando una imagen de calidad en el centro.
• Llegar al máximo de la población posible tanto a nivel municipal como en general en los tres Territorios Históricos.
• Cualquier otro que sea de interés para ambas partes y que no suponga un coste económico, salvo que acepten dicho gasto.

TERCERA. CONDICIONES PARA LA PRESTACION DE LOS SERVICIOS
• Calendario laboral: KZgunea establecerá un calendario laboral estándar anual para todos sus centros y que se elaborará en el último mes del año anterior y se enviará al Ayuntamiento. Este calendario laboral contemplará siempre los festivos de carácter municipal, provincial, autonómico y nacional aprobado por el Gobierno. Además, con carácter general el mes de agosto será considerado como festivo para todos los KZgunea. El calendario laboral se comunicará a los ayuntamientos tan pronto como sea aprobado por el Centro de Gestión. En cualquier caso, dicho calendario laboral deberá ajustarse a las propias fechas y horarios de apertura de espacio en el que se encuentra localizado el centro KZgunea.
• Apertura del local: siempre que sea posible, se facilitará al máximo la apertura del centro KZgunea al personal educador y/o al personal externo de programas asociados a entidades que solicitan colaboraciones con KZgunea en los horarios que se requieran para ofrecer los servicios de formación KZgunea y de formación externa.

kostua ekar dezake udalarentzat honelako ekintzak direla eta: gutunak inprimatzea,
KZguneak helarazitako propaganda banatzea, zentroa promozionatzeko ekitaldiak antolatzea, etab.

LAUGARRENA. ZERBITZUEN ZERRENDA

KZguneetako zerbitzu estandarrak
Indarrean dagoen Zerbitzuen Kartan sartuta daudenak.

KZguneetako zerbitzu ez-estandarrak
Udalak KZguneari aipatu berri diren zerbitzu estandarretan sartzen ez den zerbitzuren bat emateko eskatuko balio, zerbitzu horiek honela aratuko dira:

- KZgunea zentroa dagoen espazioa utzi ahal izango da KZguneko hezitzaileen lan orduetatik kanpo, eskabide formal bat aurkezten denean.
- KZgunearena ez den prestakuntza emateko, beharrezkoak diren baliabide teknologikoak egokitu behar badira, KZguneari dagokio egokitzapen hori eskatzea, kudeatzea eta ezartzea, aldaketa horiek aztertu eta bideragarriak direla erabaki eta gero.
- Udalak, beharra izanez gero, zentroa KZgunearen ordutegitik kanpo zabaldu ahal izango du nabigazio-zerbitzuak eskaintzeko. Beasainko Udalak KZguneari zentroa zein ordutegitan irekiko duen jakinaraziko dio, zerbitzu horren publizitate egokia egin dadin.

BOSGARRENA.- EJIE-REN BETEBEHARRAK

EJIEk honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

- Zentroen sarean kokatuta dagoen KZgunea zentroa kudeatzea, KZC@ kudeaketa-zentroan ezarritako irizpide estrategikoei jarraituz. Zentro horiek beharrezko baliabide material eta teknologikoak zein giza baliabideak izango dituzte ezarritako helburuak erdiesteko. Udalerri ezberdinetako KZguneen funtzionamendua homogeneoa izango da, eta Zerbitzuen Kartan zehaztutakoak betetzea izango du helburu.
- KZgunea zentroa beharrezkoak diren baliabide teknologiko eta didaktikoekin zein giza baliabideekin hornitzea, eta horietatik eratorritako kostuak bere gain hartzea ezarritako

- Colaboración en la promoción: siempre que sea posible, el ayuntamiento colaborará en la promoción de los servicios que se ofrezcan desde KZgunea. Esta colaboración puede suponer un coste para el ayuntamiento en la impresión de cartas, reparto de publicidad proporcionada por KZgunea, actos de promoción del centro, etc.

CUARTA. ENUMERACION DE LOS SERVICIOS
Servicios estándar Kzgunea Aquellos incluidos en la Carta de Servicios vigente.

Servicios no estándar KZgunea
En aquellos casos en los que el ayuntamiento solicite de KZgunea algún servicio que se salga del estándar establecido anteriormente, estos servicios se regularán del siguiente modo:

- La infraestructura del centro KZgunea puede ser puesta a disposición fuera del horario de presencia de personal educador de KZgunea a través de una solicitud formal del mismo.
- La adecuación de los medios tecnológicos necesarios para la impartición de formación ajena a KZgunea será solicitado, gestionado e implantado por KZgunea, bajo análisis y validación previa de la viabilidad de los mismos.
- Si el Ayuntamiento lo requiere podrá abrir el centro con el objeto de prestar servicios de navegación fuera del horario de KZgunea. El ayuntamiento de Beasain comunicará a KZgunea los horarios de apertura con el objetivo de publicitarlos convenientemente.

QUINTA. OBLIGACIONES DE EJIE

EJIE asume las siguientes obligaciones:

- Gestionar el centro KZgunea encuadrado en la red de centros, en base a los criterios estratégicos establecidos desde el Centro de Gestión KZC@ y que dispondrán de los medios humanos, materiales y tecnológicos necesarios para la consecución de los objetivos marcados. El funcionamiento de los KZgunea de los diferentes municipios será homogéneo y destinado al cumplimiento de lo especificado en la Carta de Servicios.
- Dotar al centro KZgunea de los recursos humanos, tecnológicos y didácticos necesarios, para conseguir los objetivos planteados,

helburuak betetzeko.Baliabide hauek dira azpimarragarrienak:

o Azpiegitura teknikoak (PCak, komunikazio-lineak...): erostea eta onik mantentzea, bai horiek konpontzea eta ordezkatzea ere. 1. eranskinean adierazten da instalatutako ekipo- kopurua.

o KZC@ programaren helburua teknologiak sustatzea da; horretarako diseinatutako zerbitzuen katalogoa osatzen duten prestakuntza- eta zabalkunde-materialak.

o Zerbitzuen katalogoan ageri diren jarduerak egitea.

o Zentroaren kudeaketa egiteko beharrezko informazio-sistema (erabilera eta jarduerei dagozkien estatistikak etab.).

o KZguneko Kudeaketa-Zentroak erabiltzaileei arreta emateko lanak, mantentze-lanak, euskarri teknikoei loturikoak etab. kudeatuko ditu.

o Hezitzailearen presentziak bermatuko du KZguneak eskaintzen dituen zerbitzuak behar bezala ematen direla.

• KZgunea proiektuari lotutako langileek ez dute inolako kontratu-konpromisorik ez eta lan-loturarik izango Beasainko Udalarekin. KZgunea zentroko hezitzaileek ez dute inola ere dagokion toki- administrazioarekin lan- harremanik edo harreman profesionalik izango.

• Udalarekin elkarlanean aritzea zentroan egiten diren jardueren berri herritarren artean zabaltzeko, udalerriko ahalik eta pertsona gehienek parte hartzea lortze aldera. EJIEk beharrezko baliabide (materialak, pertsonalak eta ekonomikoak) erabili eta bere gain hartuko ditu, oro har hiru lurralde historikoetan aplikatu beharreko dibulgazio-ekintzetan.

• Zentroaren jarduerak beste erakunde-ekimen batzuekin koordinatzea horien gehienezko sinergia eta errentagarritasuna lortzeko, udalerriko herritarren mesedetan.

• Udalari zentroaren eguneroko funtzionamenduaren eta egindako hobekuntza-ekintzen inguruko informazioa ematea, inbertitutako baliabideen eta lortutako emaitzen arteko oreka mantentze aldera.

• Udal eta gizarte-etxeetan ematen den zerbitzuaren garapenean sortzen diren gorabehera gatazkatsu eta gizalegearen aurkako jokabide oro koordinatzaileari jakinaraztea.

asumiendo los costes que de ello se deriven. Cabe resaltar los siguientes recursos:

o Infraestructuras Técnicas (PCs, líneas de comunicaciones...): tanto su adquisición, el posterior mantenimiento, así como la reparación y sustitución. El número de los equipos instalados se recoge en el Anexo 1.

o Material de formación y divulgación que configuren el catálogo de servicios dirigido a promocionar las tecnologías objeto del programa KZC@.

o La prestación de las actividades recogidas en el catálogo de servicios.

o Sistema de Información que posibilite la gestión del centro (estadísticas de uso, de actividades, etc.).

o Apoyo del Centro de Gestión de KZgunea en tareas de atención a las personas usuarias, mantenimiento, soporte, etc.

o Personal educador cuya presencia garantizará la correcta prestación de los servicios ofrecidos por KZgunea.

• Exención de vinculación del personal asociado al proyecto KZgunea con cualquier compromiso contractual o vinculación laboral con el Ayuntamiento de Beasain. El personal educador del centro KZgunea no tendrá, en ningún caso, relación laboral o profesional con la Administración Local respectiva.

• Colaborar con el Ayuntamiento en la divulgación, entre la ciudadanía de las actividades que se desarrollen en el centro, en aras de conseguir una máxima participación de los/las ciudadanos/as del Municipio. EJIE utilizará y asumirá los medios necesarios (materiales, personales y económicos) en aquellas acciones divulgativas que sean de aplicación, de manera general, a los tres Territorios Históricos.

• Coordinar las actividades del centro con otras iniciativas institucionales que posibiliten una máxima sinergia y rentabilidad de las mismas, en beneficio de los/las ciudadanos/as del Municipio.

• Proporcionar al Ayuntamiento la información relativa al funcionamiento cotidiano del centro y de las acciones de mejora que se acometan, en aras de mantener un equilibrio entre los recursos invertidos y los resultados obtenidos.

• Proporcionar y poner en conocimiento de la persona coordinadora del centro todas las incidencias de naturaleza conflictiva, así como conductas incívicas que surjan en el desarrollo

• Lokalak eraikitzeko, altzariz janzteko eta antolatzeko jarraibideak eta irudi korporatiboa ematea.
• Aipatutako zentroa KZgunea zentroen sare orokorrean sartzea, martxan jarriko diren jarduera komunei etekina atera diezaien.

SEIGARRENA. BEASAINKO UDALAREN BETEBEHARRAK

Beasainko Udalak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

• 1. eranskinean adierazitako lekuan kokatutako lokal bat EJIEren esku jartzea jabari publikoko emakida bidez eta kosterik gabe, KZgunea programa gara dadin. Lokal horri sarbide-baldintza egokiak eman beharko dizkie Udalak KZgunearen identifikazio eta errotulazio egokia beti bermatuko delarik.. Lokalaren atontzea, altzariei, pinturari, kableei eta abarrei dagokienez.
• Erantzukizun zibila eta lokalen mantentze-lan desegokiek KZgunearen azpiegitura-ekipoei eragindako kalteak bere gain hartzea, ondorioz, beharrezkoak diren aseguruak kontratatzea eta udal-titulartasuneko lokal eta instalazioei dagozkien segurtasun-arau eta neurriak ezartzea.
• Lokala baldintza egokietan mantentzea, garbitasunari, urari, energia elektrikoari eta abarrei dagokienez, eta horietatik eratorritako gastuak bere gain hartzea.
• Udalaren ahalmenen neurrian, 1. eranskinean adierazten den helbidean dagoen KZgunean ematen den zerbitzuaren erabilera ona sustatu eta bultzatzea, betiere EAEko KZguneetako jendearentzako arretako langileekiko jarrera bortitzen aurkako prebentzio- eta jarduera-plana kontuan hartuta..
• Zentroko egunerokoan gerta litezkeen gatazka-egoerak bideratzeko harremanetarako baliabide egokiak ematea.
• Zentroaren eta bertan garatzen diren jardueren berri ematea Udalak helburu horretarako dituen baliabideak erabiliz (Udal Aldizkaria, mailing-ak...), KZgunea programako Komunikazio arduradunarekin koordinatuta.
• Aipatutako hedapen hori egiteko beharrezkoak diren baliabide materialak, pertsonalak zein ekonomikoak bere gain hartzea. Zentroak udalerriaren esparruan garatzen dituen

del servicio prestado en los centros cívicos y municipales.
• Proporcionar la imagen corporativa y las orientaciones de construcción, mobiliario y organización de locales.
• Integrar dicho centro en la red global de centros KZgunea con el fin de que se beneficie de las actuaciones comunes que se emprendan.

SEXTA. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

El Ayuntamiento de Beasain asume las siguientes obligaciones:

• Poner a disposición de EJIE bajo la fórmula de la concesión demanial y al objeto del desarrollo del programa KZgunea, sin coste alguno, un aula situada en la ubicación indicada en el Anexo 1, y dotarla de condiciones de acceso adecuadas, garantizando siempre la apropiada identificación y rotulación del centro KZgunea. Acondicionarlo(s) en cuanto a mobiliario, pintura, cableado, etc.
• Asumir la responsabilidad civil y los desperfectos o daños a los equipos de la infraestructura KZgunea derivados de un inadecuado mantenimiento de los locales, en consecuencia, contratar los seguros necesarios y establecer las normas y medidas de seguridad pertinentes correspondientes a los locales e instalaciones de titularidad municipal.
• Mantener el local en las condiciones adecuadas en cuanto a limpieza, agua, energía eléctrica, etc., y asumir los costes derivados.
• Promover y procurar, dentro del ámbito de posibilidades municipales, el buen uso del servicio que se presta en el centro KZgunea situado en la dirección que se indica en el Anexo 1, tomando en consideración el plan de prevención y actuación ante actitudes violentas hacia el personal de atención al público de los centros KZgunea de la CAE.
• Proporcionar los medios de contacto oportunos para encauzar posibles situaciones conflictivas que pudieran darse en el día a día del centro.
• Divulgar la existencia del centro y las actividades que se desarrollen asociadas al proyecto KZgunea, utilizando los medios que disponga al efecto el Ayuntamiento (Revista Municipal, mailings,...) en coordinación con la persona responsable de Comunicación de la red KZgunea.
• Asumir los medios necesarios materiales, personales como económicos para la

jardueren zabalkunde- ekintzetarako soilik erabiliko ditu Beasainko Udalak bide horiek.

divulgación citada. El Ayuntamiento de Beasain utilizará estos medios en aquellas acciones divulgativas que se refieran sólo a las actividades del centro en el ámbito local del Municipio.

ZAZPIGARRENA. KONTROLA ETA SEGIMENDUA

Hitzarmen honen bidez adosten diren zerbitzuen funtzionamendu egokia zaindu beharko dute bi alderdieketa, bi aldeetako edozeinek eskatuta, bilerak egin ahal izango dira egokitzat jotzen denean.

Alde bakoitzak esleituko dituen langileak:

• EJIEk KZguneko Kudeaketa Zentroari loturiko langileak esleituko ditu.

• Beasainko udalaren aldetik:

o Eusko Jaurlaritzako arduradun instituzionalekin harremanetan egongo den izaera instituzionaleko bitarteko bat.

o Eta izaera teknikoko bitartekariak, KZguneko Kudeaketa Zentroan dauden arduradunekin harremana mantentzen dutenak.

SÉPTIMA. CONTROL Y SEGUIMIENTO

Ambas partes deberán velar por el buen funcionamiento de los servicios que mediante este convenio se acuerden, pudiéndose celebrar las reuniones que se estimen oportunas por convocatoria de cualquiera de las partes.

Cada parte designará al personal:

• Por parte de EJIE, el personal pertinente del Centro de Gestión de KZgunea.

• Por parte del Ayuntamiento de Beasain.

o Persona de contacto de carácter institucional que mantengan la relación con las personas responsables institucionales del Gobierno Vasco.

o Y/o personas de contacto de carácter técnico que mantengan la interlocución con las personas responsables del servicio ubicados en el Centro de Gestión de KZgunea

ZORTZIGARRENA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

Lankidetza-hitzarmen honek ez du alde sinatzaileen artean betebehar ekonomikorik sortzen.

OCTAVA. RÉGIMEN ECONÓMICO

Este convenio de colaboración no comporta obligaciones económicas entre las partes firmantes.

BEDERATZIGARRENA. IRAUPENA ETA ONDORIOAK

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik kontatuta; hala ere, beste lau urteko luzapena izan dezake, betiere ekitaldi horretako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa badago.

NOVENA. PLAZO DE DURACIÓN Y EFECTOS

El presente convenio entrará en vigor a partir del día de su firma y extenderá su vigencia por un plazo de cuatro años, sin perjuicio de su posible prórroga por otro período adicional de cuatro años y, siempre que exista crédito adecuado y suficiente en los presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio correspondiente.

HAMARGARRENA.-HITZARMENA AZKENTZEKO ARRAZOIAK

Hitzarmen hau bi alderdiek hala adosten badute edo alderdietako batek bere kabuz erabakitzen badubaliogabetu ahal izango da beste aldeak bere betebeharrak betetzen ez baditu edo egokitzat jotzen duen beste edozein arrazoi gertatzen bada, betiere kontrako alderdiari gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazten badio. Krediturik ez egotearen edo hori murriztearen ondorioz hitzarmena ez luzatzea erabakitzen bada eta arrazoi horregatik azkentzen bada hitzarmena, Euskal Autonomia

DÉCIMA. CAUSAS DE EXTINCIÓN

El presente convenio podrá ser resuelto por acuerdo de ambas partes o por decisión unilateral de una de ellas, motivada por el incumplimiento de sus obligaciones por la parte contraria o por cualquier otra razón que estime oportuna, siempre y cuando se lo comunique a la parte contraria con, al menos, tres meses de antelación. En caso de extinción por falta de prórroga a consecuencia de inexistencia o reducción de crédito la comunicación se hará

Erkidegoko Aurrekontu orokorrak argitaratu eta gero egingo da jakinarazpena.
Hitzarmen honetako helburuak erdiesten badira, gertaera hori hitzarmen hau azkentzeko arrazoia izan daiteke eta, Kalitate Planean ezarrita dagoen EAEko hiru lurraldeetan ahalik eta jende gehienengana heltzeko helburu orokorra ardatz hartuta, ekipoak eta langileak KZgunea proiektuak bere zerbitzuak eman behar dituenbeste udalerri batera eraman ahal izango dira.
Hitzarmena azkentzeko arrazoia edozein dela ere, ez da ondare-ondoriorik egongo eta aldeetako bakoitzak proiektuari emandako baliabide eta ondasunen jabetza eta titulartasuna mantenduko du zentroa ixtea adostu ondoren.

HAMAIKAGARRENA.- ERREGIMEN JURIDIKOA
Hitzarmen hau izaera administratibokoa da, Sektore Publikoaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan lankidetza-hitzarmenetarako bereziki xedatutakoarekin bat.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoekin bat, hitzarmen hau Lege horren aplikazio-eremutik kanpo dago.

HAMABIGARRENA. ARAZOAK KONPONTZEA
Hitzarmen hau sinatuz, alderdiek hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherak elkarren arteko adostasunez konpontzeko konpromisoa hartzen dute.

HAMAHIRUGARRENA.INFORMAZIOAREN BABESA ETA SEGURTASUNA

Hitzarmen hau garatzean Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak galdatzen dituen segurtasun neurriak hartuko dira, edo hori ordezkatzen duenean eta/edo hori garatzeko araudi osagarrian ezarritakoak.

HAMALAUGARRENA. ALDAKETAK
Hitzarmen honetan zehaztutako exekuzio-baldintzetan eragina duten inguruabarrak aldatu egiten badira, baldintza horiek aldatu egin ahalko dira bi aldeek sinatutako eranskin baten bidez;

una vez publicados los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Una vez cumplidos los objetivos que enmarca este convenio, y siguiendo el objetivo general de llegar al máximo de la población posible en los tres Territorios Históricos del Programa KZgunea establecido en el Plan de Calidad, podrá esto ser causa de extinción del convenio y así poder dar traslado a los recursos de equipos y personal a otras localidades a las que el proyecto KZgunea también deba ofertar sus servicios.
No se derivarán consecuencias patrimoniales por la extinción del convenio, cualquiera que sea su causa, manteniendo cada una de las partes la propiedad y titularidad de los bienes y recursos aportados al proyecto una vez que se acuerde el cierre del centro.

UNDÉCIMA. RÉGIMEN JURÍDICO
El presente Convenio tiene naturaleza administrativa, conforme a lo dispuesto especialmente para los convenios de colaboración en el artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

De conformidad con lo previsto en el artículo 6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, está excluido del ámbito de aplicación de la misma.

DUODÉCIMA. RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS
Mediante la firma del presente convenio las partes se comprometen a resolver de mutuo acuerdo las incidencias que puedan surgir en su cumplimiento.

DECIMOTERCERA. PROTECCIÓN Y SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

En el desarrollo del presente convenio se adoptarán las medidas de seguridad pertinentes que sean requeridas por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales o las establecidas en aquella que la sustituya, y/o en su normativa de desarrollo complementario.

DECIMOCUARTA. MODIFICACIONES
La alteración de circunstancias que afecten a las condiciones de ejecución previstas en el presente Convenio, podrán ser modificadas mediante adenda suscrita por ambas partes por

horretan idatzitako puntuek jatorrizko testukoak ordezkatuko dituzte eta jatorrizko hitzarmenera gehituko dira, gainerako klausulei inolako aldaketarik eragin gabe.

la que se sustituya los puntos que en ella se transcriban y se adjunte al convenio matriz, sin que el resto de las cláusulas de éste sean modificadas.

Programara bideratutako kredituan edo, efizientzia dela eta, kreditu hori KZguneen artean banatzeko moduan aldaketarik gertatzen bada, lanpostu-kopuruak, hezitzaile-kopuruak eta dedikazioak eta KZgunearen ordutegiak aldaketak jasan ditzakete proiektua indarrean dagoen artean. Alderdi horietako edozein aldatzeak ez du beste hitzarmen bat sinatzea edo hitzarmen hau aldatzea eskatuko. Udalerrian zentro berri bat zabaltzen bada indarrean dagoen hitzarmeneko eranskina aldatu beharko da, gorago adierazi bezala, besterik ez.

Tanto el número de puestos, número y dedicación horaria de personal educador, como el horario del KZgunea pueden variar durante la vigencia del proyecto debido a la modificación del crédito destinado al programa en cuestión o a la redistribución del mismo en base a términos de eficiencia. La modificación de cualquiera de estos aspectos no requiere de la firma de un nuevo convenio o modificación del presente. La apertura de un nuevo centro en el municipio, al igual que lo preceptuado anteriormente, únicamente precisará de modificación del anexo del convenio vigente.

1. ERANSKINA

UDAL ETA GIZARTE-ETXEAREN KOKAPENA

ANEXO 1

UBICACION DEL CENTRO

| KZ zentroa / Centro KZ | Helbidea / Dirección | P.K. 7 C.P. | Tfnoa. |
|---|---|---|---|
| Beasain | Oriako pasealekua, 12, solairuartea | 20200 | 943023622 |

LANERAKO LEKUAK

Gaur egun zentroak honenbeste lanerako leku dituzte, eta lehentasunez prestakuntza-jarduerak garatzeko erabiliko dira:

PUESTOS DE TRABAJO

Actualmente el centro está dotado de los siguientes puestos de trabajo para uso preferente en la puesta en marcha de actividades formativas:

| KZ zentroa | Lanerako leku- kopurua:<br>Nº de puestos de trabajo |
|---|---|
| Beasain | 17 |

**<u>3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK</u>**:

a.- <u>2023. URTERAKO GLLK BANATZEKO UDAL IRIZPIDEAK ONARTZEA</u>. 2023AESO0081

**<u>3.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE CIUDADANÍA</u>**:

a.- <u>CRITERIOS MUNICIPALES PARA EL REPARTO DE LAS AES PARA ESTE AÑO 2023</u>.

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

*AURREKARIAK*

*I. Euskal Sistemaren Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak, pertsonak baztertzeko arriskua prebenitzea, bazterkeria pertsonal, sozial eta laboraleko egoerak arintzea, bizitza duinaren garapena bermatzea eta baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenak gizartean erabat sartzea sustatzea du helburu.*

*Euskal Sistemaren Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko osagaien artean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) daude.*

*II. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako Departamentuak urtero GLLtako kontzeptu bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta Udal bakoitzarentzako aurrekontu-mugak ezartzen du.*

*III. Abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 67-2 artikuluaren arabera, GLLak aitortzeko eta kontrolatzeko eskumena eskatzailea erroldatuta dagoen eta benetako bizilekua duen udalari dagokio.*

*IV. Aginduak, 2023ko urtarrilaren 31koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2023. urtean GLLetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko gehienez emango diren diru kopuruak eta Udal bakoitzeko aurrekontu-mugak ezartzen ditu.*

*2023. urterako, Eusko Jaurlaritzak 145.777 €-ko aurrekontu-muga ezarri du Beasaingo udalerrirako.*

*V.- 2023ko ekitaldirako Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako Udalaren aurrekontu-partida 158.843 eurokoa da. Eusko Jaurlaritzaren aurtengo esleipena txikiagoa bada ere, asmoa dago 2023. urterako aurrekontu-partidari eustea laguntza horiek emateko.*

*GLLko eskaeretako kontzeptu guztiak atenditzeko baliteke nahikoa ez izatea. Hori*

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Ciudadanía:

*ANTECEDENTES*

*I. La ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, tiene por objeto prevenir el riesgo de exclusión de las personas, paliar situaciones de exclusión personal, social y laboral, garantizar el desarrollo de una vida digna y promover la plena inclusión en la sociedad de quienes carezcan de suficientes recursos personales, laborales, sociales o económicos.*

*Entre los componentes del Sistema Vasco de Ingresos y para la Inclusión, se encuentran las Ayudas de Emergencia Social (AES).*

*II. El Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, establece anualmente las cuantías máximas para cada concepto de las AES y los límites presupuestarios para cada Ayuntamiento.*

*III. Según el artículo 67-2 de la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, la competencia para el reconocimiento y control de las AES corresponde al ayuntamiento en el que esté empadronada y tenga su residencia efectiva la persona solicitante.*

*IV. La Orden de 31 de enero de 2023, de la Vice lehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo y de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, establece para el año 2023, las cuantías máximas para cada uno de los gastos específicos de las AES y fija el límite presupuestario para cada Ayuntamiento.*

*Para este año 2023, el límite presupuestario que el Gobierno Vasco establece para el municipio de Beasain es de 145.777€.*

*V.- La partida presupuestaria municipal para Ayudas de Emergencia Social para el ejercicio 2023 es de 158.843€. Si bien la asignación del Gobierno Vasco para este año es inferior, existe voluntad de mantener el importe de la partida presupuestaria para este año 2023 para destinarla a la concesión de las citadas ayudas.*

*No obstante, el importe de la partida presupuestaria municipal podría resultar insuficiente para atender todos los conceptos*

*dela eta, laguntza hauek emateko beharrezkoa da udal irizpideak ezartzea.*

*OINARRI JURIDIKOAK*

*Aipatutakoak*

*PROPOSAMENA*

*Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*

*Lehenik: 2023. urterako GLLk banatzeko udal irizpideak onartzea.*

*Bigarren: Hartzen den erabakia GAOn argitaratzea."*

*de las solicitudes de las AES. Es por ello que se hace necesario establecer criterios municipales de concesión de estas ayudas.*

*BASES JURIDICAS*

*Las ya mencionadas*

*PROPUESTA*

*La Comisión de Ciudadanía somete a la consideración del Pleno municipal, la siguiente propuesta de acuerdo:*

*Primero: Aprobar los criterios municipales para el reparto de las AES para este año 2023.*

*Segundo: Publicar el acuerdo que se adopte en el BOG."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Gogoratuko duzue guk lehengo urtean aurka bozkatu genuela Udalak ez zuelako Eusko Jaurlaritzak markatutako irizpide berdinak jarraitzen, energia eta alokairu gastuetarako. Aurten badirudi berdintzen direla eta zentzu horretan ados, baina kuriosoa iruditzen zaigu udalak bere aldetik jartzen duen partida jakinda ez garela iritsiko, izan ere ez dakigu Aldundiak ordaintzerik izango duen. Ados gaude markatzen diren irizpideekin baina egiten dugun irakurketa da gizarte larrialdi laguntzak horiek guk beste irizpide batzuekin banatuko genituzkeela. Horregatik abstenitu egingo gara.

Bestalde, arreta deitu digu energia gastuetan kontuan izan dela iaz egindako gastuak eta ez dakigu GOIEKIn egindako gogoetetan intziditu den. Beharra badago eta iruditzen zaigu gastu hori handitu egingo dela."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Recordaréis que el año pasado votamos en contra porque el Ayuntamiento no seguía los mismos criterios que el Gobierno Vasco para los gastos de energía y alquiler. Este año parece que se igualan y en ese sentido estamos de acuerdo, pero nos llama la atención la partida que pone el ayuntamiento por su parte sabiendo que no llegaremos, de hecho no sabemos si la Diputación podrá pagar. Estamos de acuerdo con los criterios que se marcan pero la lectura que hacemos es que esas ayudas de emergencia social las repartiríamos nosotros con otros criterios. Por eso nos abstendremos. Por otro lado, nos llama la atención que en los gastos de energía se han tenido en cuenta los gastos realizados el año pasado y no sabemos si han influido las reflexiones realizadas en GOIEKI. Hay necesidad y nos parece que ese gasto va a aumentar."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Iaz egia da Eusko Jaurlaritzak markatzen zituen irizpideak baino kopuru txikiagoak onartu genituela, ikusita udal honen azken urteetako joera. Hau da, irizpideak markatzen ziren eta urte amaieran ikusten bazen osatu zitezkeela, nolabait ere GLLengatik jasotzen duguna edo udalak dirua jarri ondoren, oraindik dirua egon ezkero, osatu egiten ziren eta bigarren deialdi batean aurretik estali ez ziren gastuak estaltzen ziren. Hori horrela, lehengo urtean genuen partida ia 160 mila eurokoa zen

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "El año pasado es cierto que aceptamos cantidades inferiores a los criterios que marcaba el Gobierno Vasco, vista la tendencia en este Ayuntamiento en los últimos años. Es decir, se marcaban los criterios y si a finales de año se veía que se podían completar, de alguna manera de lo que recibimos por las AES o después de que el ayuntamiento pusiera dinero, si todavía había dinero, se complementaban y se cubrían gastos que no se habían cubierto con anterioridad en una segunda

eta ikusi zen azaroak arte egindako minorazioa kontuan hartuta, gutxi gorabehera, 95 mila euro banatuta zeudela. Bigarren ronda bat egin zen eta egindako eskaera guztiak onartu ahal izan genituen, 158 mila euro horiekin. Aurten ere aurreikusten da kopuru horien barruan seguraski denak jaso ahal izango ditugula. Energia gastuen iazko portzentajea altua izan da, Ucraniako gerra tarteko, gastu hori izugarri igo delako. Orain baretze bat espero da baina 1.500 €ko gehieneko muga hori, Jaurlaritzak markatzen duena, mantenduko dugu. Zentzu horretan GOIEKIren eskutik eta GOIENERen laguntzaz, hasita dago lanketa bat eta udal ezberdinetako gizarte ongizate sailekin egonak daude, GLLren onuradun diren horien fakturak tratatu eta ahalik eta kontratu eta fakturazio hoberena lortzeko. Momentu honetan burokrazia arazoak daude, izan ere GLLren onuradun horiek udalari ematen diote faktura ordainketa egin ahal izateko baina ez faktura hori tratatu ahal izateko. Orain dela gutxi GOIEKI eta GOIENERekin bilera izan genuen eta ea zein formula eman dakiokegun denon artean hori posible egin ahal izateko. Bestalde esan, eskualdeko energia bulego bat martxan jartzeko asmoa dagoela, Beasainen, egindako aurreikuspenen arabera, astean bitan irekita egongo litzateke eta bulego horretara edozein herritar gerturatu ahal izango da, herritarren fakturen optimizazioa lortze aldera."

convocatoria. Así, la partida que teníamos el año pasado era de casi 160 mil euros y se observó que, teniendo en cuenta la minoración realizada hasta noviembre, se repartían aproximadamente 95 mil euros. Se hizo una segunda ronda y pudimos aceptar todas las peticiones que hicimos, con esos 158 mil euros. Este año también se prevé que dentro de estas cifras probablemente podamos recoger todas. El porcentaje de los gastos energéticos del año pasado ha sido alto, debido a que, durante la guerra de Ucrania, este gasto ha aumentado drásticamente. Ahora se espera un alivio, pero mantenemos ese límite máximo de 1.500 € que marca el Gobierno. En este sentido, de la mano de GOIEKI y con la colaboración de GOIENER, ya se ha iniciado un trabajo y hemos mantenido contactos con los departamentos de bienestar social de diferentes ayuntamientos para tratar las facturas de los beneficiarios de las AES y conseguir el mejor contrato y facturación posible. En este momento hay problemas de burocracia, ya que estos beneficiarios de las AES entregan la factura al Ayuntamiento para poder realizar el pago pero no para poder tratarla. Recientemente tuvimos una reunión con GOIEKI y GOIENER para ver qué fórmula se le puede utilizar para que entre todos podamos hacerlo posible. Por otro lado, decir que está previsto poner en marcha una oficina de energía comarcal, en Beasain, que según las previsiones realizadas estaría abierta dos veces por semana y a la que podrá acercarse cualquier ciudadano, con el fin de lograr una optimización de las facturas de los ciudadanos."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Bale, GLLak kobratzen dituztenen fakturak merketze aldera iango litzateke, baina ez litzateke izango bono soziala beraien gastua estaltzeko."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): " Bale, para abaratar las facturas de quienes cobran las AES, pero no sería un bono social para cubrir su gasto."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "GLLren onuradun horien fakturak aztertu, tratatu eta konpaienaz aldatuz edo eskaintza hobeak lortu ditzakete. Gero daude familia ugariak dituzten abantaila batzuk. Fakturak optimizatzea ekarriko luke diru horiek beharra duten beste batzuen alde banatzeko. Lan-lerroa GLLren onuradunak dira baina badaude baita izan da ahaztu RGIaren onuradunak ere badaudela."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Pueden estudiar, tratar las facturas de estos beneficiarios de las AES y cambiar compañias u obtener mejores ofertas. Luego hay algunas ventajas para familias numerosas. La optimización de las facturas supondría repartir esos dineros a favor de otros necesitados. La línea de trabajo son los beneficiarios de las AES pero también hay beneficiarios de la RGI."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Tras debatir el asunto suficientemente se ha sometido a votación obteniéndose el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Votos a favor: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo irizpideak onartu dira GLLk banatzeko:

En consecuencia, se han aprobado los criterios para el reparto de la AES con la mayoría absoluta:

“Aginduan, 2023ko urtarrilaren 31koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2023. urtean GLLetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko gehienez emango diren diru kopuruak eta Udal bakoitzeko aurrekontu-mugak ezartzen dira.

Udalak ahalmena du Eusko Jaurlaritzak Beasaingo Udalari esleitutako kreditua aurkeztutako eskaeren artean banatzeko (14/2022 Legea, abenduaren 22koa, 67, 2).

Horretarako, udalbatzak 2023-04-04an hartutako erabakiaren bidez, bakoitzak ordaindu beharreko kontzeptuak eta zenbatekoak (gehienekoak) honela finkatu dira, koadroan zerrendatzen den lehentasun-ordenaren arabera.

“En la Orden de 31 de enero de 2023, de la Vice lehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo y de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, se establecen para el año 2023, las cuantías máximas para cada uno de los gastos específicos de las AES y se fija el límite presupuestario para cada Ayuntamiento.

Es potestad municipal distribuir el crédito asignado por parte del Gobierno Vasco al Ayuntamiento de Beasain, entre las solicitudes presentadas (Ley 14/2022, de 22 de diciembre, art. 67, 2).

A tal efecto mediante acuerdo plenario de 4-04-2023, los conceptos e importes (máximos) a satisfacer por cada uno de ellos han quedado fijados de la siguiente manera y por el orden de prioridad que en el cuadro se relaciona.

| **Kontzeptua/gastua**<br>**Concepto/ Gasto** | **Eusko Jaurlaritza**<br>**Gbbierno Vasco** | **Beasaingo Udala**<br>**Ayuntamiento Beasain** |
|---|---|---|
| <u>1.- Alogera/Alquiler</u><br><br>-Etxebizitza osoa/Viviena completa<br><br>-Gela/habitación | <br><br>300€ hilean/mes<br><br><br>150€ hilean/mes | <br><br>300€ hilean/mes<br><br><br>150€ hilean/mes |
| <u>2.-Kredituen interes eta amortizazioa Intereses y amortización</u> | 300€ hilean/mes | 300€ hilean/mes |

| | | |
|---|---|---|
| de crédito | | |
| 3.- Energia /Energía<br><br>-Elkarbizitza unitate 1/ 1 unidad de convivencia<br><br>-Elkarbitiza unitate 2 / 2 unidades de convivencia | 125€ hilean/mes<br><br>62,50€ hilean/mes | 125€ hilean/mes<br><br>62,50€ hilean/mes |
| 4.- Ohiko etxebizitaren erabilera eta mantenimendua /Uso y mantenimiento de la vivienda<br><br>-Elkarbizitza unitate 1/ 1 unidad de convivencia<br><br>-Elkarbitiza unitate 2 / 2 unidades de convivencia | 900€ urtean/año<br><br>450€ urtean/año | 900€ urtean/año<br><br>450€ urtean/año<br><br>Desglosea/desglose:<br><br>4.1-Komunitatea / Comunidad: 75€ hilean/mes<br><br>4.2-Etxeko asegurua /seguro hogar: 100€ urtean/año<br><br>4.3-OHZ/IBI: 200€ urtean/año |
| 5.- Oinarrizko premiak/necesidades básicas | 2.500€ urtean/año | 2.500€ urtean/año<br><br>Desglosea/desglose:<br><br>5.1-Prestakuntza-ikastarotara eta osasun zentroetara garraioa / Transporte a cursos de formación y a centros sanitarios: 60€ hilean/mes<br><br>5.2-Betaurrekoak/gafas: 250€ pertsoneko /por persona<br><br>5.3-Dentista: 600€ pertsoneko/por persona |
| 6.- Altzariak eta elektrogailuak/ mobiliario y electrodomésticos | 1.850€ urtean/año | 1.850€ urtean/año<br><br>Desglosea:<br><br>6.1-Altzariak/molbiliario: 1.000€ urtean/año |

| | | |
|---|---|---|
| | | 6.2 -Elektrodomestikoak: 850€ urtean/año :<br><br>-Garbigailua/lavadora:300€<br><br>-Hozkailua/frigorífico: 400€<br><br>-Erauzgailua/extractor: 100€<br><br>-Labea/horno: 250€<br><br>-Plaka: 150€<br><br>-Mikrouhina/microondas: 50€ |
| 7.- Etxearen egokitzapen, konponketa eta instalazioak / Adaptación, reparación e instalaciones de la vivienda | 1.850€ urtean/año | 1.850€ urtean/año |
| 8.- Aurretiaz egindako zorpetzea/ Endeudamiento previo<br><br>-Elkarbizitza unitate 1/ 1 unidad de convivencia<br><br>-Elkarbitiza unitate 2 / 2 unidades de convivencia | <br><br><br>3.000€ urtean/año<br><br>1.500€ urtean/año | <br><br><br>3.000€ urtean/año<br><br>1.500€ urtean/año |

1etik 5-1)era zerrendatutako kontzeptuak/gastuak eskaerak aurkeztu ahala ebatziko dira; gainerakoak hiru hilean behin ebatziko dira.

Los conceptos/gastos enumerados del 1 al 5-1) se resolverán a medida que se presenten las solicitudes; el resto será resuelto trimestralmente.

Urtearen amaieran, aurrekontu-partidan kreditua egoten bada, gutxiagotutako kontzeptuetan udalak diru-kopuru bat ordainduko du hainbanaketa formula erabiliz (banaketa proportzionala).

Si a fin de año sigue existiendo crédito en la partida presupuestaria, el ayuntamiento abonará en aquellos conceptos minorados una cantidad suplementaria utilizando para ello la fórmula de prorrateo (reparto proporcional).

KONTZEPTU/GASTU BAKOITZA APLIKATZEKO ARAUAK

NORMAS DE APLICACIÓN DE CADA UNO DE LOS CONCEPTOS/GASTOS

1. Alokairu gastuak

1.Gastos de alquiler

● Hilero gehienez 300€ ordainduko dira etxebizitza osoa alokatzeagatik, eta 150€

● La cantidad máxima que se abonará mensualmente será de 300€ por el alquiler de

alokairua logela batengatik (apopilotza edo azpierrentamendu) edo etxebizitzan maizter bat baino gehiago badago. Zenbateko horiek ezin dira izan, inola ere, alokairu-, baterako errentamendu- edo azpierrentamendu-gastuetarako zenbateko osoaren % 70 baino handiagoak.

● Alokairu babestuko etxebizitzak direnean, edo BO Etxebizitzak, edo Udal titulartasunekoak, ez dira GLLak onartuko alokairu kontzepturako.

● Alogera kontzeptuko pertsona onuradun batek etxebizitza alokatuta baldin badauka eta azpierrentamenduko kontratua egiten badio beste pertsona bati, alokairu preziotik deskontatuko zaio azpierrentamendutik jasotzen duen kantitatea.

2. Etxebizitza erosteko eskatutako kredituen interes eta amortizazioek eragindako gastuak (hipoteka)

● Kredituak ohiko etxebizitza ordaintzeko izan behar du. Salerosketa-eskriturak eta kredituari dagokion dokumentazioa eskatuko dira.

● Gizarte-larrialdi egoeran egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak sartzen dira soilik; 300 € gehienez hilero, ezingo delarik kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren zenbatekoaren %70 gainditu.

● BO etxebizitzak baldin badira, GLLak ez dira onartuko kontzeptu honetarako.

3. Energia gastuak

● Energia gastu gisa kontutan hartuko dira: elektrizitatea, gasolioa, egurra, ikatza eta gasa (ur beroa barne).

4.-Etxebizitzaren erabilerako eta mantentzeko gastuak

vivienda completa y de 150€ en los casos en el que el alquiler sea por una habitación (pupilaje o subarriendo) o un coarriendo de vivienda. Dichas cantidades no pueden superar, en ningún caso el 70% del total de la cuantía para gasto de alquiler, coarriendo o subarriendo.

● Cuando se trate de viviendas de alquiler protegido, viviendas de protección oficial o de titularidad municipal, no se aprobarán AES en concepto de alquiler.

● Si una persona beneficiaria de ayuda en concepto de alquiler hace un contrato de subarriendo a otra, se le descontará del precio de alquiler la cantidad que reciba del subarriendo.

2. Gastos derivados de intereses y de amortización de créditos solicitados para obtener una vivienda (hipoteca)

● El crédito tiene que destinarse al pago de la vivienda habitual. Se pedirán las escrituras de compraventa, así como documentación relativa al crédito.

● Se tienen en cuenta únicamente los gastos generados por intereses y amortización de créditos para compra de vivienda o alojamiento solicitados con anterioridad a estar en situación de emergencia social; hasta 300€ mensuales, sin poder superar el 70% del montante de los intereses mensuales y la amortización mensual del crédito.

● Si se trata de viviendas de protección oficial, no se aprobarán AES para este concepto.

3. Gastos de energía

● Se tendrán en cuenta como gastos de energía: electricidad, gasoil, madera, carbón y gas (incluida agua caliente).

4. Gastos para el disfrute y mantenimiento de la vivienda

● Erabilerako eta mantenu gastu gisa kontutan hartuko dira: komunitateko gastuak, etxeko asegurua eta OHZ.

5.- Oinarrizko premien gastuak

● Ondorengo gastuei emango zaie lehentasuna:

5.1) Prestakuntza-ikastaroetara eta osasun-zentroetara joateko garraio-gastuak.: MUGI txartelaren eta garraio publikoaren gastuak. Gehieneko kopurua 60€ hilean.

Beharrezkoa izango da prestakuntza-ikastaroen ordutegiak, datak, eduki orokorrak eta asistentzia-justifikazioa aurkeztea. . Osasun-zentroetara joanez gero: bertaratzearen justifikazioa.

Zuriketa gisa MUGI txartelaren mugimenduak edo erabilitako garraioaren txartela aurkeztuko dira.

5.2) Betaurrekoak erosteko gastuak.

5.3) Dentistaren gastuak.

Ez dira hortzak ateratzeak eragindako gastuak sartzen, ezta panoramikak eta PADI programatik sartzen diren gastuak ere.

● Betaurrekoak erosteko eta dentistaren gastuetarako laguntzak tramitatzeko bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira.

6.- Altzari eta elektrogailuen gastuak

● Laguntza hauek tramitatzeko bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira.

● Alokairuan dauden onuradunek altzari eta elektro gailuak erosteko laguntza eska dezakete, beti ere, alogerako kontratuaren arabera erosketa etxearen jabeari ez badagokio.

7.- Etxearen egokitzapen, konponketa eta oinarrizko instalazioen gastuak

● Kontzeptu honengatik Etxebideri eskatutako subentzioaren aldeko ebazpena dagoenean, subentzioaren kopurua gastutik deskontatuko da

● Se tendrán en cuenta como gastos de disfrute y mantenimiento: Gastos de comunidad, seguro del hogar y el IBI.

5. Gastos de necesidades básicas

● Se atenderán preferentemente los siguientes gastos:

5.1) Gastos de transporte a cursos de formación y a centros sanitarios: gastos de la tarjeta MUGI y de transporte público. Importe máximo 60€ mensuales.

Será necesaria la presentación de horarios, fechas, contenidos generales y justificación de asistencia a los cursos de formación. En el caso de asistencia a centros sanitarios: justificación de asistencia

Se presentarán a modo de justificante los movimientos de la tarjeta MUGI y/o billete del transporte utilizado.

5.2) Gastos por compra de gafas.

5.3) Gastos de dentista.
No se incluyen gastos para extracción de dientes, ni panorámicas, ni gastos incluidos en el programa PADI.

● Para tramitar ayudas en concepto de gastos de dentista y compra de gafas, habrá que presentar dos presupuestos diferentes.

6.- Gastos de mobiliario y electrodomésticos

● Para tramitar estas ayudas habrá que presentar dos presupuestos diferentes.

● Las personas inquilinas podrán solicitar ayuda para adquisición de mobiliario y electrodomésticos, siempre y cuando su comprar no corresponda a la persona propietaria de la vivienda, según el contrato de alquiler.

7.- Gastos de adaptación, reparación e instalaciones básicas

● Cuando exista resolución favorable de la subvención solicitada a Etxebide por este concepto, se descontará del importe del gasto la

eta ateratzen den zenbatekoa GLLak eskatzeko gastu gisa kontuan hartzen dena izango da.

subvención obtenida y la cantidad resultante será la que se tenga en cuenta como gasto para solicitar las AES.

●Etxe tresna elektrikoen konponketa: 6. puntuan adierazitako etxe tresna elektrikoen konponketaren gastua soilik sartuko da.

● Reparación de electrodomésticos: se incluirá únicamente el gasto de reparación de los electrodomésticos indicados en el punto 6.

8. Aurretiaz egindako zorpetze-gastuak

● Aipatutako 1etik 7arteko kontzeptuengatik zorpetze gastuak kontuan hartuko dira beti ere , GLL eskaera egin aurretik sortu badira.

8. Gastos de endeudamiento previo

● Se atenderán los gastos de endeudamiento de los conceptos 1 a 7 mencionados, siempre que se hayan generado con anterioridad a la realización de la solicitud de AES.

ARAU OROKORRAK

1.- Udaletik kanpo ateratzea

Laguntza hauen onuradunek udalerritik kanpo ateratzeko gehienez hilabete bat edukiko dute urtean zehar.

Alde egin baino lehen, Gizarte Ongizate azpisaileko bulegoetara joan beharko dute, absentziaren aldiaren berri emanez.

Udalerrirako itzulera dokumentu berri bat sinatuz berretsiko da.

Adierazitako jarraibideak betetzen ez badira, laguntza eten egingo da absentzia-denbora osoan.

NORMAS GENERALES

1.- Ausencia del municipio

Las personas beneficiarias de estas ayudas, dispondrán como máximo de un mes al año para ausentarse del municipio.

Antes de ausentarse deberán personarse en las dependencias de la subárea de Bienestar Social, dando cuenta del período de la ausencia.

El regreso al municipio se confirmará con la firma de un nuevo documento.

En caso de no cumplir las instrucciones indicadas, la ayuda se suspenderá durante el tiempo de ausencia.

2.- Onuradunen betebeharrak eta konpromezuak

- Laguntza hauen onuradunek eta bere familia unitatea osatzen dutenek, eskaeran adierazitako betebeharrak eta ekintzetarako konpromisoak bete beharko dituzte.

- GLLen onuradunek beren familia-unitatearen beharrak asetzeko erabiliko dituzte beren diru-sarrerak, eta ezin izango dituzte beren baliabide ekonomikoak erabili familia-unitatetik kanpoko pertsonei laguntzeko.

- Atzerritarrek GLLen eskaerarekin batera, nazionalizatuta dagoen herrialdeko ondasunen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute.

2.- Obligaciones y compromisos de las personas beneficiarias

- Las personas beneficiarias de estas ayudas, así como las integrantes de su unidad familiar, tendrán que cumplir las obligaciones y los compromisos de realización de actividades indicadas en la solicitud.

- Las personas beneficiarias de AES deberán destinar sus ingresos a satisfacer las necesidades de su unidad familiar, no pudiendo destinar sus recursos económicos a ayudar a personas ajenas a la misma.

- Las personas extranjeras deberán presentar junto con la solicitud de AES, declaración jurada de bienes del país del que esté nacionalizado.

3.- Laguntzak etetea

Laguntzak ondorengo kasuetan etengo dira:

a) Ez aurkeztea  jarraieko bi hitzorduetara justifikaziorik gabe.

b) GLLen betebeharrak eta/edo eskaeran adierazitako jarduerak egiteko konpromisoren bat betetzen ez betetzea.

c) Udalerritik kanpo urtean hilabete bat baina gehiago egotea.

d) Dokumentazio faltsua aurkeztea.

Aipatutako kasuetan, laguntzak gutxienez hilabetez etengo dira, eta ez dira berriz hasiko etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen ez diren bitartean, d) idatz-zatian adierazitakoa izan ezik; kasu horretan, laguntza ukatu edo eten egingo da, eta ezingo da berriro eskatu 6 hilabete igaro arte.

a), b) eta c) ataletan adierazitakoa berrerortzeak GLLak gutxienez 3 hilabetez etetea ekarriko du.

4.- Diru-sarrerak

Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Programa aldatzen duen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuan ezarritakoaz gain, honako hauek hartuko dira diru-sarreratzat:

a) Etxebizitzaren katastro-balioa, etxebizitza dohaintzan ematen bada; balio hori “diru-sarrera atipikotzat” hartuko da.

b) Ondasun higiezinen katastro-balioaren zati proportzionala, titulartasun-ehunekoaren arabera. Ohizko etxebizitza salbuetsita dago.

c) Ohiko etxebizitza saltzetik datozen diru-sarrerak, baldin eta ohiko beste etxebizitza bat erosteko inbertitzen ez bada. “Diru-sarrera atipikotzat”  hartuko dira.

3.- Suspensión de las ayudas

Las ayudas se suspenderán en los siguientes casos:

a) No personarse sin justificación a dos citas consecutivas.

b) Incumplimiento de las obligaciones de las AES y/o algún compromiso de realización de actividades indicadas en la solicitud.

c) Ausentarse del municipio por un período superior a 1 mes al año.

d) Presentación de documentación falsa.

En los casos citados, las ayudas se interrumpirán como mínimo durante un mes y no se reiniciará mientras no desaparezcan las razones que motivaron la interrupción, a excepción de lo indicado en el apartado d) en cuyo caso se denegará o suspenderá la ayuda y no podrá volver a solicitarse hasta haber trascurrido 6 meses.

La reincidencia de lo indicado en los apartados a), b) y c, conllevará a la suspensión de las AES por un período mínimo de 3 meses.

4.-Ingresos económicos

Además de lo establecido en el Decreto 4/2011, de 18 de enero, de las Ayudas de Emergencia Social y Decreto 16/2017, de 17 de enero, de modificación del Decreto de Ayudas de Emergencia Social, tendrán la consideración de ingresos:

a) El valor catastral de la vivienda habitual en caso de que ésta sea donada; dicho valor tendrá la consideración de “ingreso atípico”.

b) La parte proporcional del valor catastral de los bienes inmuebles, según su porcentaje de titularidad. Queda excluida la vivienda habitual.

c) Los ingresos procedentes de la venta de la vivienda habitual siempre y cuando no se invierta en la compra de otra vivienda habitual. Tendrán la consideración de “ingreso atípico”.

d) Apopilotatik lortutako diru-sarrerak.

5.- Ibilgailu motordunak

Familia-unitateak ibilgailu motordun bat baino gehiago badu, 6 hilabeteko epea emango da baja emateko izapideak hasteko.

Epe hori igarota, unitate familiarrak ibilgailu bat baino gehiago mantentzen badu, GLLak eten egingo dira.

Egoera bereziak baloratuko dira.

6.- Salbuespena

Salbuespen gisa eta gehienez ere 2 urtetan onartu ahal izango dira GLLak, Etxebideko etxe batean bizi eta beste bat jabetzan duten pertsona/familiei. Kasu hauek Gizarte Ongizate azpisailean baloratuko dira.

7.- Udal zorrak ordaintzeko konpromezua

GLLen eskatzaileak zorrak baditu udal ogasunarekin, ezin izango da GLLetarako eskubidea aitortu, salbu eta udalaren zorra ordaintzeko konpromisoa hartzen badu, dela osorik dela zatika (gutxienez 60 €hilean).

8.- Eskaera epea

Eskaerak aurkezteko epea 2023-12-15arte izango da

9. Gastuen justifikazioak

Diruz lagundutako gastuen fakturak, hilero 20 eta 23 epeko egunetan aurkeztu beharko dira.

Gastuen agiriak aurkezteko epea 2023-12-23arte izango da genienez ere."

b.- BEASAINGO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK. 2023OIME0007

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

d) Los ingresos procedentes del pupilaje.

5.- Vehículos a motor

Si la unidad familiar dispone de más de 1 vehículo a motor, se dará el plazo de 6 meses para que se inicien los trámites de baja de los mismos.

Si transcurrido dicho plazo la unidad familiar sigue manteniendo más de 1 vehículo, se suspenderán las AES.

Se valorarán las situaciones especiales.

6.- Excepcionalidad

Excepcionalmente y por un período máximo de 2 años se podrán conceder AES a personas o familias que viviendo en un piso de Etxebide, tienen otro en propiedad. Estos casos serán valorados en la subárea de Bienestar Social.

7.- Compromiso de pago de deudas municipales

En caso de que la persona solicitante de AES tenga deudas con la hacienda municipal, no se concederán las AES, salvo que se comprometa al pago de la deuda municipal bien de manera total o fraccionada (mínimo 60€/mes).

8.- Plazo de solicitud

El plazo de presentación de solicitudes será hasta el 15-12-2023

9.- Justificación de los gastos

Las facturas de los gastos subvencionados tendrán que presentarse entre los días 20 a 23 de cada mes.

El plazo para presentar los justificantes de gasto será como máximo hasta el 23-12-2023."

b.- BASES PARA REGULAR LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA ALQUILER DE VIVIENDA EN LA LOCALIDAD DE BEASAIN.

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Ciudadanía:

"*Gaia: Beasaingo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak ematea arautuko duen oinarriak.*
*Beasaingo udalak 2023.urtean etxebizitzaren alorrean 18-35 urte bitarteko gazteei eta mugikortasun urria dutenei etxebizitza alokatzeko erraztasunak ematea du helburu, beraien testuinguru eta baliabide ekonomikoak kontuan hartuta, horrela etxebizitza eskuratzea erraztuz eta horren ondorioz, emantzipazioa sustatuz. Oinarri hauek helburu horri erantzuteko asmoa dute.*

*AURREKARIAK*

1. *Lehenengo aldiz 2021eko abenduaren 31ko GAOn argitaratu ziren 2022rako etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak ematea arautu zituzten oinarri erregulatzaileak.*
2. *Merkataritza azpisaileko arduradun teknikoak 2023ko martxoaren 20an egindako txostena.*
3. *Udalak 2022.urtean 6 laguni eman zien dirulaguntza hau eta 30.285,50 euroko dirulaguntza eman zuen kontzeptu honetarako.*

*LEGERI APLIKAGARRIA*
*-2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa,17.artikulua, 34.*
*-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.*
*-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra.*
*-Dirulaguntzak arautzen dituen udal-araua.*
*-2023-2025erako Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.*

*PROPOSAMENA:*

*Beasaingo Udalak 18-35 urte bitarteko gazteei eta mugikortasun urria duten pertsonei diru laguntza eman nahi die baldintza batzuek betetzen dituen etxebizitza alokatzeko, beraien baliabide ekonomikoak kontuan hartuta. Hori dela eta, Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio:*

*Lehenik: Beasaingo Udalak 18-35 urte bitarteko gazteei eta mugimendu urria duten pertsonei etxebizitza alokatzeko diru laguntza ematea.*

*"Tema: Bases de subvenciones para alquiler de vivienda en la localidad de Beasain.*

*El Ayuntamiento de Beasain tiene como objetivo en el año 2023 facilitar el alquiler de viviendas a jóvenes de 18-35 años y personas con movilidad reducida, teniendo en cuenta su contexto y sus recursos económicos, facilitando así la adquisición de la vivienda y promoviendo la emancipación. Estas basews pretenden responder a ello.*

*ANTECEDENTES*

1. *En el BOG de 31 de diciembre de 2021 se publicaron por primera vez las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el alquiler de viviendas para el año 2022.*
2. *Informe del responsable técnico del subárea comercial de 20 de marzo de 2.023.*
3. *En el año 2022 el Ayuntamineto subvencionó a 6 personas por este concepto con 30.285,50€*

*LEGISLACIÓN APLICABLE*

*-Ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadiu. Artículo 17,34.*
*-Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones.*
*-Ordenanza municipal reguladora de subvenciones.*
*-El Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Beasain del año 2023-2025.*

*PROPUESTA*

*El Ayuntamiento de Beasain quiere otorgar subveniones a los jóvenes de 18 a 35 años y a las personas con movilidad reducida para alquilara una vivenda que cumpla unas condiciones, teniendo en cuenta sus recursos económicos. Por ello, la Comisión Ciudadana hace la siguiente propuesta al Pleno Municipal:*

Bigarrena: *Dirulaguntzak hauek izango dira:*
*-Pertsona bakarraren kasuan*

*Primero: Subvencionar el alquiler de viviendas en Beasain a jóvenes de 18-35 años y a personas con movilidad reducida.*

*Segundo: Las subvenciones serán las siguientes:*
*-En caso de una sola persona*

| Diru sarrera gordinak eurotan | Alokairu gastuaren % | Gehieneko dirulaguntza |
|---|---|---|
| 26.000 eta 28.000 euro bitartean | %20 | 100 euro |
| 24.000 eta 25.999 euro bitartean | %30 | 150 euro |
| 22.000 eta 23.999 euro bitartean | %40 | 200 euro |
| 21.999 euro arte | %50 | 250 euro |

| Ingresos netos en euros | % del gasto de alquiler | Máxima subvención |
|---|---|---|
| 26.000-28.000 euros | %20 | 100 euros |
| 24.000-25.999 euros | %30 | 150 euros |
| 22.000-23.999 euros | %40 | 200 euros |
| Hasta 21.999 euros | %50 | 250 euros |

-*Bizikidetza-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute*

*-Cuando la unidad convivencial está compuesta por más de una persona*

| Diru sarrera gordinak eurotan<br>Ingresos netos en euros | Alokairu gastuaren %<br>% del gasto de alquiler | Gehieneko dirulaguntza<br>Subvención máxima |
|---|---|---|
| 33.000 eta 39.000 euro bitartean | %20 | 100 euro |
| 30.000 eta 32.9000 euro bitartean | %30 | 150 euro |
| 26.000 eta 29.900 euro bitartean | %40 | 200 euro |
| 25.900 euro arte | %50 | 250 euro |
| | | |

*Gehieneko diru laguntza hilean 250 eurokoa eta 12 hilabetekoa izango da.*"

*La subvención máxima será de 250 euros mensuales por solicitud y de 12 meses como máximo para un período.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socislistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En la comisión cuando se trató el tema ya hablamos de ello. Estamos de acuerdo con EH Bildu sobre ampliar estas ayudas a otras personas. Creemos que estas ayudas son positivas y ya el año pasado cuando se presentaron las valoramos favorablemente. Pero tal y como se regula en otros municipios se podrían hacer valer

para mejorar el acceso al mercado de viviendas vacías dirigidas a personas monoparentales o personas mayores de 65 años en situación de viudedad que tienen dificultades para acceder a la vivienda. Existen diferentes ayudas para la vivienda, no sólo municipales, también del Gobierno Vasco y Central y nosotros podríamos añadir un granito de arena. Por lo tanto, el ampliar el colectivo de beneficiarios sería positivo."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Lehengo urtean eta oraingo ere bai batzordean proposatu genuen. Oker ez bagaude lehengo urtean lau edo sei eskaera izan ziren. Dugun biztanle kopurua kontuan izanda, gutxi. Batzordean esan zen aztertuko zela laguntza hauen onuradun-kolektiboak handitzea baina berriro lehengo urteko baldintzak berdinetan ematea proposatzen da. Pena ematen digu denbora ez hartzea aztertzeko benetan zein kolektiboei mesede egin dezaketen.

Alokairuaren inguruan beti aipatu dugu laguntza hauek lotuta joan beharko liratekeela etxe-hutsen jabekideekin egindako lanketarekin, zeren eta Beasainen ez dago etxebizitza-alokairu parkerik. Oinarri hauek beste lanketa batekin ez badoaz, laguntzak ezean geratzen dira. Laguntzak direnetik ondo baina hutsune asko dituzte."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "El año pasado y también este año propusimos en la comisión. Si no estamos equivocados el año pasado hubo cuatro o seis solicitudes. Son pocos para el número de habitantes que tenemos. En la Comisión se dijo que se estudiaría aumentar los colectivos de beneficiarios de estas ayudas pero se propone volver a concederlas en las mismas condiciones que el año anterior. Nos da pena que no se dedique tiempo a analizar qué colectivos de puede beneficiarse.

Sobre el alquiler siempre hemos comentado que estas ayudas deberían ir ligadas al trabajo con los copropietarios de las vivendas vacías, porque en Beasain no hay parque de alquiler de viviendas. Si estas bases no van acompañadas de otro trabajo, las ayudas quedan en nada. Vemos bien las ayudas, pero tienen muchas deficiencias."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Aukerak, noski, ezberdinak izan daitezke. Diru laguntza hauek martxan jartzeko ez da besterik gabe hartutako erabaki bat, baizik eta azterketa baten ondorioz egindakoa. ETXEBIDEen alokairurako eskatzen dituztenak ia erdiak gazteak dira (18-35 bitartekoak). Zentzu horretan ere Eusko Jaurlaritzak alokatzeko diru laguntzak ematen dituenean gazte kolektibo horientzat eskaintzen ditu, denon erronka delako emantzipazioan laguntzea eta emantzipazio adin hori, jaistea. Eusko Jaurlaritzak esfortzu berri bat egin du emantzipazio adin horiek jaisteko. Esaten duzue, beste kolektibo batzuk egon daitezke. Noski, baina kolektibo horiek ere beste diru laguntza mota batzuk izan dezakete. Oraintxe bertan esan dugu GLLak jasotzen dituztenek, etxebizitzaren alokairurako ere hilabetero dirulaguntzak batzuk jaso ditzakete. Bestalde, badaude etxebizitza gastuetarako pentsio osagarriak ere badaude. Alokatu nahi duten guztiak ez ditugu sartuko etxebizitza dirulaguntza hauen lerroan, baina kolektibo nagusia sartzen dugu, kontuan hartuta gizarte bezala ditugun erronkak.

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Las opciones, por supuesto, pueden ser diferentes. La puesta en marcha de estas subvenciones no es una decisión tomada sin más, sino fruto de un estudio. Casi la mitad de las personas demandantes de alquiler en ETXEBIDE son jóvenes (de 18 a 35 años). En este sentido, cuando el Gobierno Vasco concede ayudas al alquiler las ofrece para estos colectivos de jóvenes, ya que el reto común es contribuir a la emancipación y reducir esa edad de emancipación. El Gobierno Vasco ha hecho un nuevo esfuerzo para rebajar estas edades de emancipación. Decís, puede haber otros colectivos. Claro, pero estos colectivos también pueden tener otro tipo de subvenciones. Ahora mismo hemos dicho que los perceptores de las AES también pueden recibir subvenciones mensuales para el alquiler de la vivienda. Por otro lado, existen pensiones complementarias para gastos de vivienda. No vamos a incluir a todos los que quieran alquilar en esta línea de subvenciones de vivienda, pero sí incluimos al

Denon artan egin behar dugu eta saiakerak egin behar dira etxebizitza horiek funtzio sozial bat betetzeko. Laguntza guztiak ongi-etorriak dira. Beharbada ez da nahikoa izango, baina guk ematen ditugun hobari horietatik ere ia 70 etxebizitza-jabeek onurak jasotzen dituzte (ETXEBIDE programa) beraien etxebizitzak alokatzeagatik.

Beraz, oinarriak lanketa baten ondorio dira. Beste batzuetan egiten den bezala, gure antzekoak izan daitezkeen herriak ere aztertu ditugu eta denetan, ñabardura ezberdinak izan daitezke, gazteen kolektiboa jo mugan jartzen da kolektibo hori delako eskatzaile nagusiena."

colectivo principal, teniendo en cuenta los retos que tenemos como sociedad.

Tenemos que trabajar todos y hay que intentar que estas viviendas cumplan una función social. Todas las ayudas son bienvenidas. Puede que no sea suficiente, pero también de esas bonificaciones que nosotros otorgamos, se benefician casi 70 propietarios de viviendas (programa ETXEBIDE) por alquilar sus viviendas.

Por tanto, las bases obedecen a un trabajo previo. Como se hace en otras ocasiones, también hemos analizado pueblos que pueden ser similares a nosotros y en todos ellos, aunque los matices pueden ser diferentes, el objetivo es el colectivo joven porque es el principal demandante."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Beti aipatzen da Eusko Jaurlaritzak emantzipaziorako ematen dituzten laguntzen osagarriak direla. Gazteen emantzipazioa helburua izanda, ez genituzke bultzatu behar Errekarteko etxebizitza tasatuak eta babes ofizialekoak egitea. Orain Fleming eremuan beste etxebizitza mota bat sustatu behar duzue. Zein erraz erabiltzen ditugun hitzak eta praktikan zein gutxi egiten den!. Hau laguntza sinbolikoa izan daiteke baina beste kolektiboei zein laguntza ematen diegu?."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Siempre se menciona que son ayudas complementarias a las que concede el Gobierno Vasco para la emancipación. Teniendo como objetivo la emancipación de los jóvenes, no deberíamos impulsar la construcción de viviendas tasadas y de protección oficial de Errekarte. Ahora vais promocionar otro tipo de vivienda en el área de Fleming. ¡Con qué facilidad usamos las palabras y cuán poco se hace en la práctica! Esto puede ser una ayuda simbólica, pero ¿qué ayuda prestamos a otros colectivos?"

Alkate andreak (EAJ-PNV): "GLLak daude baldintza horiek betetzen dituztenentzat. Etxebizitzaren pentsio osagarriak ere badaude. Denak ez dira jasota egongo, baina multzokatuta portzentaje handiena jasota dago. Esan duzu ezer ez dugula egiten eta aukerak galtzen ditugula. ETXEBIDEn inskribatuta daudenen kopurua handia izan daiteke, baina zuk ere jakingo duzu Errekarteko 23 babes ofizialeko etxebizitzetarako, 31 pertsonak bakarrik izena eman dutela."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Existen AES para quienes cumplan estos requisitos. También hay pensiones complementarias de la vivienda. No estarán todas recogidas, pero agrupadas, un gran porcentaje está recogido. Has dicho que no hacemos nada y que perdemos oportunidades.
El número de inscritos en ETXEBIDE puede ser alto, pero tú también sabrás que para 23 viviendas de VPO de Errekarte, sólo se han inscrito 31 personas."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Baina, zergatik bota dira atzera?."
Alkate andreak (EAJ-PNV): "Batzuk izango dituzte zailtasun ekonomikoak etxebizitza horietara iristeko."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Pero, ¿por qué se han echado atrás ?".

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Algunos tendrán dificultades económicas para acceder a estas viviendas.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Noski, “%99ak zailtasun ekonomikoa. Banketxetara joan eta finantzaziorik ez dutelako, atzera bota.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zuk datuak dituzu esateko hori horrela dela?.”
Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Tokatu zaien askoena, bai.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Horrela beharko luke baina ez da beti hori gertatzen. Dena dela ez dut uzte hori hemen eztabaidatzeko tokia denik, etxebizitzen kontua oso zabala delako.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Ez. Ez da baina izan da aipatu duzulako emantzipazioa lortzeko beste bide batzuk jorratu behar direla.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu dira ondorengo oinarriak:

BEASAINGO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK. 2023 URTEA

ZIOEN AZALPENA

Beasaingo Udalak, etxebizitzaren alorrean, gazteei eta mugikortasun urria dutenei etxebizitza alokatzeko erraztasunak ematea du helburu, beraien alokairuaren kostua eta errentarien baliabide ekonomikoak kontuan hartuz.

1.XEDEA

Laguntza hauen xedea eskaera egiten duten errentarien ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea da, horretara bideratuak dauden gainerako laguntzetarako dirulaguntzarik jasotzen ez

Bildu): “Por supuesto, el 99% tendrán dificultades económicas. Al no obtener financiación de los bancos, se echan para atras.”

Sra Alcaldesa (EAJ-PNV): “¿ Tu tienes datos para decir que eso es así ?”.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “De muchos de los que les ha tocado, sí.”

Sra Alcaldesa (EAJ-PNV): “Así debería ser, pero no siempre ocurre eso. De todas formas, no es este el lugar para discutir eso, porque la cuestión de las viviendas es muy amplia.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “No. No lo es, pero ha sido porque has mencionado que para conseguir la emancipación hay que recorrer otros caminos.”

Tras debatir el asunto suficientemente se ha sometido a votación obteniéndose el siguiente resultado:

Votos a favor: 9 (EAJ-PNV)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

En consecuencia, se han aprobado las siguientes bases con la mayoría absoluta:

BASES REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA EN LA LOCALIDAD DE BEASAIN. AÑO 2023

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Ayuntamiento de Beasain tiene como objetivo facilitar el alquiler de vivienda a jóvenes y personas con movilidad reducida, teniendo en cuenta para ello el coste del alquiler y los recursos económicos de los inquilinos.

1. OBJETO

El objeto de estas ayudas es contribuir al pago de una parte del alquiler de la vivienda que constituya la residencia habitual de las personas inquilinas solicitantes y no perciban ayudas de otros programas destinadas a tal efecto (Bizigune, Gaztelagun, Prestación

badute (Bizigune, Gaztelagun, Etxebizitzetarako Prestazio Osagarria edo alokairu kontzeptuan Gizarte Larrialdietarako Laguntza).

Laguntza hauek 2023-2025 urteetarako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan daude aurreikusita, zehazki 1.helburu estrategikoan: Gizarte-ekintza sustatzea eta 1.7.lerroan: 18-35 urte bitarteko gazteentzat eta mugikortasun urriko personentzat etxebizitza hutsen alokaiura sustatzea.
Laguntza hauen bidez gazteen emantzipazio bidean lagundu nahi da, mugikortasun urriko pertsonek oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitzak izatea sustatu nahi da eta etxebizitza hutsen merkaturako sarbidea sustatu.
Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin deialdiarekin aurretik aipatutako helburu bat lortzen lagundu dela, 18-35 urte bitarteko gazte batzuk eskatu zuten dirulaguntza hau eta helburuari laguntzeko modua da dirulaguntza hau eskatzen dutenek udalerriko alokairuko etxebizitza honetan bizitzeko baldintza bete behar dutela nahitaez eta horrela beraien emantzipazioa bermatzen dela. Baina mugikortasun urria dutenen dirulaguntza eskaerarik ez zenez izan, ezin da esan zein modutan lortu den helburua betetzea.

Complementaria de Vivienda, Ayuda de Emergencia Social en concepto de alquiler).

Las presentes ayudas están previstas en el Plan Estratégico de Subvenciones aprobado para los años 2023-2025, concretamente, en el objetivo estratégico 1: Promover la acción social y línea 1.7: Fomento de alquiler de viviendas vacías para jóvenes entre 18-35 años y personas con movilidad reducida.
Con estas ayudas se percibe coadyuvar a la emancipación de los jóvenes, facilitar que las personas con movilidad reducida tengan acceso a viviendas sin barreras arquitectónicas y promover el acceso al mercado de vivienda vacía.

Se ha constatado que con la convocatoria realizada el pasado ejercicio se ha contribuido al logro de un objetivo porque los jóvenes entre 18-35 años que han solicitado esta subvención tienen la obligación de cumplir el requisito de residir en esta vivienda de alquiler del municipio, garantizando así su emancipación. Pero al no existir solicitud de subvención para personas con movilidad reducida, no se puede decir de qué manera se ha conseguido cumplir el objetivo.

## 2.FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 22.000,00 euroko kreditua aurreikusita du, horretarako sortutako aurrekontu honetan: 0260.480.337.20.01 alokairurako dirulaguntzak.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa (22.000,00 €) handitu ahal izango da aldaketaren zenbatekoa dela eta eskumena esleituta duen organoaren aldetik baina beti ere aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik. Horrek ez du beste deialdirik ekarriko.

## 2.FINANCIACIÓN

Para la financiación de la ayudas objeto de la presente convocatoria, el Ayuntamiento tiene previsto un crédito de 22.000,00 €, en la partida presupuestaria creada a tal efecto: 0260.480.337.20.01.

El importe del gasto autorizado (22.000,00 €), podrá ser incrementado con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas por el órgano que tenga atribuida la competencia, por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

## 3.ONURADUNAK

Behean azaltzen diren modalitateetan sartzen diren pertsona edo bizikidetza unitateek eta 4. Artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituztenek eskatu ahalko dute dirulaguntza.

## 3. BENEFICIARIOS

Podrán ser beneficiarios de las ayudas, las personas o unidades convivenciales (grupo de personas que viven juntas en una vivienda) que estén incluidos en las modalidades definidas a continuación y cumplan los requisitos del artículo 4.
."Modalidad A": Personas jóvenes entre 18 y 35 años. Esa edad la deberán tener a la fecha de

."A modalitatea": 18 eta 35 urte bitarteko adina duten gazteak; adin hori izan behar dute eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean.

."B modalitatea": Mugikortasun urriko pertsonak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailak egindako txostenean 7tik 15 puntura edo A,B,C letrak dituztenak. Dirulaguntzaren eskatzailea Aldundiaren txosten teknikoaren zain badago, eskaera onartu egingo da, baldin eta txosten hori dirulaguntza emateko epea amaitu baino lehen aurkezten badute.

4.ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzen eskatzaileek alokairurako eskatzen den alokairuko etxebizitza librean erroldatuta egon beharko dute. Hala ere, laguntzak jasotzeko, Beasainen urtebetez etenik gabe erroldatuta egon dela egiaztatuko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Eskabidea interesdunak egin dezake, edo bizikidetza-unitateen kasuan, hura osatzen duen edozein pertsonak.

Bizikidetza-unitatea da etxebizitza edo bizileku berean bizi diren bi pertsonak edo gehiagok osatzen dutena. Pertsona horiek elkarrekin lotzen dira ezkontzaz edo harreman iraunkorrez, bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunez edo bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunez edo familia-harrera iraunkorrez edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko familia-harreraz.

Eskatzaileek alokairu kontratua izan behar dute.

Errentaren ordainketa banku-transferentzia edo kreditu entitatearen bidezko ordainketa aginduaren bidez egin behar da.

Eskatzaileek, bizikidetza unitateko kideek barne, ezingo dute jabetzan etxebizitzarik izan. Horretarako, ez dira kontuan hartuko indibisoko titularren kasuak.

finalización del plazo de presentación de solicitudes.

."Modalidad B": Personas con movilidad reducida. Quienes en el informe emitido por el Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa tengan una puntuación de 7 a 15 puntos o las letras A, B, C. Si el peticionario de la subvención está a la espera del Informe Técnico de Diputación, su solicitud será admitida siempre que presenten ese informe antes de finalizar el plazo para la concesión de la subvención.

4.REQUISITOS A CUMPLIR

Los/as solicitantes de las ayudas, deberán estar empadronadas en la vivienda, de carácter libre, alquilada para cuyo alquiler se solicita la ayuda. No obstante, para acceder a las ayudas se acreditará el empadronamiento ininterrumpido durante un año en Beasain en la citada vivienda, a la de fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

La solicitud la puede realizar el interesado/a o en el caso de unidades convivenciales, cualquiera de las personas que la integren.

Se entiende por unidad convivencial la formada por dos o más personas que conviven en una misma vivienda o domicilio, unidas entre sí por matrimonio o relación permanente, por parentesco de consanguinidad hasta el segundo grado o afinidad hasta el segundo grado de consanguinidad o acogimiento familiar permanente o preadoptivo o de tutela

Las/os solicitantes deberán estar en posesión del correspondiente contrato de arrendamiento.

El pago del alquiler deberá hacerse mediante transferencia bancaria u orden de pago mediante entidad de crédito.

Las personas solicitantes, incluidas las integrantes de la unidad convivencial para solicitar la ayuda no podrán tener ninguna vivienda en propiedad, por sí solas. Para ello, no se tendrán en cuenta los casos de titulares proindiviso.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute indibisoko etxebizitza baten titularkide badira (herentzia, donazioa…).

Si podrán solicitar ayuda cuando sean titulares de una vivienda en proindiviso (herencia, donación etc..) .

Bizikidetza-unitatearen edo eskatzaileen diru-sarreren muga oinarrien 9. apartatuan zehaztutako kopurua baino txikiagoa izatea.

Los ingresos de la unidad convivencial o de las personas solicitantes deben ser inferiores a los límites establecidos en el apartado 9 de estas Bases.

Eskatzaileek, bizikidetza unitateko kideek barne, udal ogasunean zorrik ez izatea eta Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak egunean izatea.

Las personas solicitantes, incluidas las integrantes de la unidad convivencial deberán estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Hacienda Municipal, Foral y para con la Seguridad Social.

Eusko Jaurlaritzak “Gaztelagun programaren” bidez laguntza jaso dutenen eskaerak ez dira izapidetuko.

No se tramitarán las peticiones de quienes hayan recibo una ayuda por parte del Gobierno Vasco a través del “programa Gaztelagun”.

5.ETXEBIZITZEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

5. REQUISITOS QUE DEBERÁN CUMPLIR LAS VIVIENDAS

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Beasaingo udalerrian egon beharko du eta izaera librekoa izan behar du.

1. La vivienda objeto de ayuda deberá estar situada en el término municipal de Beasain y ser de carácter libre.

2. Etxebizitzak, OHZn horrela kalifikatuta egoteaz gain, hurrengo gela eta zerbitzuak izango ditu.

2. Se considerará que la vivienda, además de estar calificada como tal en el IBI, cuenta con las siguientes dependencias y servicios:

“A” modalitatean:

a) Sukaldea, elikatze-iturri elektriko edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.
b) Dutxa edo bainu ontzia duen bainugela.
c) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volteko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin edo/eta gas hornidura.
d) Iturriko ura izatea.
e) Bizikidetza unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat izatea.

En la “modalidad “A”:

a) Cocina con fuente de alimentación eléctrica o gas adecuadamente equipada.
b) Cuarto de baño con ducha o bañera.
c) Instalación eléctrica en uso a 220 voltios con su boletín correspondiente y/o suministro de gas.
d) Disponer de agua corriente
e) Un dormitorio para cada dos personas (como máximo) de la unidad familiar.

“B” modalitatea:

“A modalitatean” a), c),d) eta e) apartaduetan izendatutakoez gain

a) Komun egokitua izan behar du
b) Arkitektura-oztoporik gabeko eta irisgarritasun-araudira egokitutako eraikina izatea.

En la “modalidad B”:

Además de las señaladas para la modalidad “A”, en los apartados a), c), d) y e)

a) Disponer de aseo adaptado
b) Ser un edificio sin barreras arquitectónicas y adaptado a la normativa de accesibilidad.

6. BAZTERTZEAK

6. EXCLUSIONES

1. Babes publikoko etxebizitzak, araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak (sozialak), orokorrak eta tasatuak (autonomikoak).

2.Bizigune programari atxikita dauden alokairuan dauden etxebizitzak.

3.Urteko deialdian zehaztuko den gehieneko alokairu-gastua gainditzen duten etxebizitzak.

4. Urtebetekoa baino iraupen txikiagoa duten alokairu-kontratuak.

5.Logelen alokairuak

6.Berralokairuak

7.Etxebizitza gisa erabilitako lokalak, garajeak, higiezin edota beste leku batzuk.

7.DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntzak 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie.

Dirulaguntzaren ordainketa lau zatitan zatikatuta egingo da:

-Lehenengo ordainketa deialdiaren ebazpena egin ondoren izango da.
-Hurrengo ordainketei dagokienez, hiru hilabetetik behin egingo dira, aldi horiei dagokien alokairuaren ordainketa egiaztatzen den guztietan.

Inongo kasuan ez da onartuko alokairuaren ordainketaren agiria 2023-12-15 baino geroago aurkeztea.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.

Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hilabeteko epean.
Ordainketa, Alkateak diru laguntzaren ebazpena ematen duenetik hilabeteko epean egingo da.

1. Las viviendas de protección pública: viviendas de protección oficial de régimen especial (sociales), general y tasado (autonómicas).

2. Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.

3.Contratos de arrendamiento que superen el gasto de alquiler máximo definido en la convocatoria anual.

4. Contratos de arrendamiento que tengan una duración menor a un año.

5. Los arrendamientos de habitaciones.

6. Subarriendos

7. Los locales / garajes y otros inmuebles o dependencias usados como vivienda.

7. PROCEDIMIENTO PARA OTORGAR LA SUBVENCIÓN

Las subvenciones se otorgarán a las personas que cumplan los requisitos del artículo 4.

El pago de la subvención se fraccionará en cuatro pagos:

-El primer pago se realizará tras la resolución de concesión de la solicitudes presentadas.
-Los sucesivos pagos se realizarán, trimestralmente, siempre que se acredite el pago del alquiler correspondiente a esos períodos.

En ningún caso se admitirá la presentación del justificante de pago del alquiler con posterioridad al 15-12-2023.

La gestión de las ayudas previstas corresponde a la subárea de Cultura, Euskera y Comercio. El personal técnico del Departamento se encargará del análisis y evaluación de las solicitudes presentadas.

La concesión o denegación de las ayudas se realizará mediante resolución de la Alcaldesa, que será notificada a la persona solicitante en un plazo de un mes.
El primer pago se realizará en un plazo de un mes a partir de la resolución de la Alcaldesa.

8. COMPATIBILIDAD DE SUBVENCIONES

8. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauen arabera emandako laguntzak ez dira bateragarriak izango helburu bererekoa emandako beste laguntza batzuekin.

9. ESKATZAILEAREN DIRU-SARRERAK, ALOKAIRUAREN GEHIENEKO GASTUAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA KALKULUA

• Diru-sarrerei dagozkien gehieneko mugak hauek izango dira:

-28.000 euro gordin urtean, bizikidetza-unitatea pertsona bakar batez osatua baldin badago.

-39.000 euro gordin urtean, bizikidetza-unitatea bi pertsona edo gehiagoz osatuta baldin badago.

Norbere kontura lan egiten dutenei gutxienez 22.000 euroko diru-sarrerak dituztela kontabilizatuko zaie.

• Alokairu-gastuei dagokienez gehieneko kopurua: hilean 750 euro ezingo da inolaz ere gainditu.

• Dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko era:

Alokairu partekatua denean, onuradun bakoitzari emateko laguntzak kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

• Dirulaguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

-Pertsona bakarraren kasuan:

Diru sarrera gordinak eurotan

1. 26.000 eta 28.000 euro b
itartean
Alokairu gastuaren %20
Gehieneko diru laguntza: 100€

2. 24.000 eta 25.999 euro bitartean
Alokairu gastuaren %30
Gehieneko dirulaguntza :150€

Las ayudas concedidas de acuerdo con estas bases no serán compatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin.

9. INGRESOS DE LOS/AS SOLICITANTES, GASTOS MÁXIMOS DE ALQUILER, CÁLCULO Y CUANTÍA DE LAS AYUDAS

- Los límites máximos de ingresos serán los siguientes:

-28.000 euros brutos anuales, si la unidad convivencial está compuesta por una sola persona.

-39.000 euros brutos anuales, si la unidad convivencial está compuesta por dos o más personas.

A quienes trabajen por cuenta propia se le reconocerán unos ingresos mínimos de 22.000 euros.

● El importe máximo de los gastos de alquiler: en ningún case se podrán superar los 750 euros.

● Modo de cálculo del importe de las subvenciones:

Cuando se trate de un alquiler compartido, las ayudas a conceder a cada beneficiario se calcularán dividiendo la renta mensual de la vivienda entre el número de titulares del contrato.

- Las cuantías de las subvenciones serán estas:

- En caso de una sola persona:

Ingresos netos en euros

1. Entre 26.000-28.000 euros
20% del gasto de alquiler
Máxima subvención: 100 euros

2. Entre 24.000-25.999 euros
30% del gasto de alquiler
Máxima subvención: 150 euros

3 Entre 22.000-23.999 euros
%40 del gasto de alquiler

3. 22.000 eta 23.999 euro bitartean
Alokairu gastuaren %40
Gehieneko dirulaguntza: 200€

4. 21.999 euro arte
Alokairu gastuaren %50
Gehieneko dirulaguntza: 250€

-Bizikidetza-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute:

Diru sarrera gordinak eurotan

1. 33.000 eta 39.000 euro bitartean
Alokairu gastuaren %20
Gehieneko dirulaguntza: 100€

2. 30.000 eta 32.999 € bitartean
Alokairu gastuaren %30
Gehieneko dirulaguntza: 150€

3. 26.000 eta 29.999€ bitartean
Alokairu gastuaren %40
Gehieneko dirulaguntza: 200€

4. 25.999€ arte
Alokairu gastuaren %50
Gehieneko dirulaguntza: 250€

Dirulaguntza gehienez hilean 250€ eskaera bakoitzeko izango da eta gehienez 12 hilabeteko epealdi baterako.

10. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Aurkeztu beharreko dokumentazioa hau izango da:

1. Eskaera orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Zinpeko aitorpena

3. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, indarrean dagoena.

4. Alokairu kontraturaren hileroko ordainketaren agiriak.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-finken erregistroan errentamendu-kontratuen fidantza jarri izanaren egiaztagiria.

Máxima subvención: 200 euros

4. Hasta 21.999 euros
50% del gasto de alquiler
Máxima subvención: 250 euros

- Cuando la unidad convivencial está compuesta por más de una persona

Ingresos netos en euros

1. Entre 33.000 y 39.000 euros
20% del gasto de alquiler
Máxima subvención: 100 euros

2. Entre 30.000 y 32.999 euros
30% del gasto de alquiler
Máxima subvención: 150 euros

3. Entre 26.000 y 29.999 euros
40% del gasto de alquiler
Máxima subvención: 200 euros

4. Hasta 25.999 euros
50% del gasto de alquiler
Máxima subvención:250 euros

En cualquiera de los casos, la subvención será de 250 euros mensuales por solicitud y como máximo por un período de 12 meses.

10. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

La documentación que se debe presentar es la siguiente:

1. Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado y firmado.

2. Declaración jurada

3. Copia del contrato del alquiler de la vivienda, el que está en vigor.

4Justificantes de pago de las mensualidades correspondientes al contrato de alquiler.

5. Justificante de haber depositado en el registro de fincas urbanas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la fianza de los contratos de arrendamiento.

6. Certificado de no ser propietario de ninguna vivienda en todo el Estado, emitido por el

6. Estatu osoan etxebizitza baten jabe ez izatearen ziurtagiria, Jabetza Erregistroak emana, laguntzaren eskatzaileei dagokienez.

7. Etxebizitza baten titularkide izanez gero, Jabetza-erregistroaren kopia soila aurkeztu beharko da.

8. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena, 2022ko jarduera ekonomikoari dagokiona.

9. PFEZaren aitorpena egitera behartua ez dagoenak honako hauek eman beharko ditu:

-Dagokion ekitaldian PFEZ aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.

-Besteren konturako langileak badira:
10T ziurtagiria (PFZEren atxikipenen ziurtagiri ofiziala).

-Pentsiodunak edo bekadunak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenak badira (Zerbitzu Sozialetako laguntzak barne): ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.

-Langabezian egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbidek igorritako inskripzio-aldien txostena izeneko ziurtagiria.

10. Beste diru sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziko da) izanez gero eta/edo beste erakundeetan diru laguntza eskatuz gero, hori adierazten duen zinpeko aitorpena.

11. Oinarri hauen 5.eta 6. Artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela zinez aitortu beharko dute eskatzaileek.

12 .Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Eskatzaileak berariazko baimena eman diezaieke Beasaingo udaleko udala zerbitzuei, eskumena duten erakundeek laguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzeko datuak bildu ditzaten, Datu Pertsonalak eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoko

Registro de la Propiedad, en relación a las personas solicitantes de la ayuda.

7. En caso de ser cotitular de vivienda será necesaria la aportación de copia simple informativa del Registro de la Propiedad.

8. Declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al ejercicio económico 2022.

9. Quien no tenga obligación de realizar la declaración de la renta deberá presentar:

-Certificado de la Hacienda Foral acreditativa de la no obligatoriedad de presentación de la declaración de la renta del correspondiente ejercicio fiscal.

-Si son trabajadores por cuenta ajena: Certificado 10T (certificado oficial por retenciones del IRPF).

-En el caso de pensionistas o personas perceptoras de becas, prestación o `subsidio, (incluidas las ayudas de Bienestar Social), el certificado de las mismas.

- Certificado del informe de períodos de inscripción emitido por Lanbide por quien no percibe la prestación estando en situación de desempleo.

10. Declaración jurada de la existencia de otros ingresos, con indicación de su cuantía, y/o solicitud de subvención en otras entidades.

11. Declaración relativa al cumplimiento de los requisitos establecidos en los artículos 5 y 6 de estas bases.

12. Cualquier otra documentación que, teniendo en cuenta las obligaciones de la subvención, pueda resultar de utilidad.

El/la solicitante podrá prestar su consentimiento expreso a los servicios municipales del Ayuntamiento a fin de que los organismos competentes recaben datos para el cumplimiento de todos los requisitos necesarios para ser beneficiario de las ayudas, de conformidad con lo establecido en el artículo 6 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de garantía de datos de carácter personal y de derechos digitales.

6.artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean.

Udalak udalerriko biztanleen errolda kontsultatuko du eskatzen diren eta bete behar diren datuak betetzen direla ziurtatzeko.

Baimena eman ezean, dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute eskariarekin batera.

11.DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

El Ayuntamiento consultará el padrón municipal de habitantes para comprobar el cumplimiento de los datos que se solicitan y que obran en él.

En caso de no dar el consentimiento, deberán presentar toda la documentación junto con la solicitud.

11.DOCUMENTACIÓN INTEROPERABLE Y VERIFICABLE.

1. La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones, en el artículo 28 reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, de tal forma que la administración actuante podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que la persona interesada se opusiera a ello. Las Administraciones Públicas deben recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas habilitados para ello.

2. El Ayuntamiento de Beasain forma parte del nudo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi Nisae, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para implementar el intercambio de datos electrónicos entre ellas y con el resto de las administraciones. Además de ello, el Ayuntamiento de Beasain hará uso de aplicaciones de la red corporativa foral u otros sistemas que permitan la verificación y obtención de documentos.

3. Los requisitos que se verificarán en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae) o de acceso público serán los siguientes:

a) Estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

b) Estar al corriente del cumplimiento de obligaciones tributarias, que se verificará con el departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

4. Erakunde eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

12. OINARRIAK ARGITARATZEKO ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAOn argitaratuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

-Noiz: Eskabideak oinarriak GAOn argitaratzen diren hurrengo egunetik 2023-09-30 arte.

-Moduak:

• Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak iGunean aurrez aurre aurkeztuta, aurretiko txanda eskatuta. Eskaera orria Beasaingo Udalaren web orritik jaitsi eta inprima daiteke.
• Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuta.

13. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Kontratuaren errentamendua urtea igaro baino lehen suntsiarazten bada, suntsiarazpen-egunera arte ordaindutakoa itzultzeko eskatuko da.

14. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren araberakoa izango da.

15. APLIKATUKO DEN ARAUDIA
Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

16. HELEGITEAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke

4. En el caso de que la entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación.

12. PLAZO DE PUBLICACIÓN DE LAS BASES Y PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Las bases se enviarán al BDNS y posteriormente se publicarán en el BOG.

Plazo y forma de presentación de solicitudes:

-Plazo: desde el día siguiente a la publicación de las bases en el BOG hasta el 30-09-2023.

-Modos:

● Presentando la hoja de solicitud y la documentación requerida en iGunea. La hoja de solicitud se puede descargar e imprimir desde la página web del Ayuntamiento de Beasain.

● Presentando a través del registro electrónico del Ayuntamiento.

13. INCUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES DE LA SUBVENCIÓN

En caso de que el arrendamiento del contrato se resuelva antes de transcurrir el año, se solicitará el reintegro de lo abonado hasta la fecha de la resolución.

14. PROTECCIÓN DE DATOS

El tratamiento de datos de las personas solicitantes se realizará cumpliendo lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018 de diciembre.

15. NORMATIVAS DE APLICACIÓN

Para todo aquello que no está previsto en esta convocatoria, será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

16. RECURSOS

Contra las presentes bases podrá interponerse, en el plazo de un mes, recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado

bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan.”

la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases.”

c.- EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEN ARI DIREN HERRITARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZAILEAK. 2023OIEU0002

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

*“AURREKARIAK:*

*2/2016 LEGEAn, apirilaren 7koan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan, 7.2 artikuluan udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena.*
*Helburu hori betetzen laguntzeko, euskara ikasten duten pertsonei ikasketa horien gastuei aurrei egiten laguntzeko oinarri hauek prestatu dira honako hauek kontuan hartuta:*

- *Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura gatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.*

- *Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14)*

- *Beasaingo Udalaren 2023-2025erako dirulaguntzan plan estrategikoa (3. Helburuaren barruan 3.1. ildoa: euskararen ikaskuntza bultzatzea).*

- *Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin aurretik aipatutako helburua lortzen lagundu dela eta udalerriko biztanleek beren euskara maila hobetu dutela.*

*Une honetan, 2023-2024 ikasturterako oinarriak onartu behar dira. Eta ondorioz, deialdi hau aldez aurretik egingo da, 2024ko ekitaldian ebatziko baita. Beraz, oinarri hauen xede diren dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.*

c.- BASES PARA REGULAR LA CONCESIÓN DE AYUDAS A LAS PERSONAS QUE ESTUDIAN EUSKARA EN LOS EUSKALTEGIS.

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Ciudadanía:

*“ANTECEDENTES:*

*La Ley 2/2016 de 7 de abril de instituciones locales de Euskadli, en el artículo 7.2 atribuye a los municipios, como propia, la competencia, con las facultades y funciones que de ella se derivan, para fomentar el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial.*

*Al objeto de contribuir al cumplimiento de dicho objetivo y ayudar a hacer frente a los gastos derivados que los cursos de euskara se han elaborado las presentes base, teniendo en cuenta para ello:*

- *La Ley 38/2003 general de subvenciones y su reglamento de desarrollo, aprobado por el Real Decreto 887/2006.*

- *La Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones (BOG, 14/06/2018)*

- *El Plan estratégico de subvenciones 2023-2025 del Ayuntamiento de Beasain (objeto estratégico 3, línea 3.1 Fomentar el aprendizaje del euskara).*

- *Se ha constatado que con la convocatoria realizada el pasado ejercicio se ha contribuido al logro del objetivo anteriormente citado y que los habitantes de Beasain han mejorado su nivel de euskara.*

*En este momento procede aprobarlas para el curso 2022-2023. En consecuencia,la presente convocatoria se efectúa de manera anticipada, ya que se resolverá en el ejercicio 2024. Por tanto, la concesión de la subvenciones objeto de las presentes bases queda condicionada a la*

*PROPOSAMENA:*

*Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio:*

*<u>Lehenik:</u> 2023-2024 ikasturtean euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea."*

*existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.*

*PROPUESTA:*

*La Comisión de Ciudadanía somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta:*

*<u>Primero</u>: Aprobar las bases para la concesión de ayudas a las personas que estudian euskara en euskaltegis en el curso 2023-2024."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH bildu): "Guk hemen ezezkoa bozkatuko dugu. Aurrekontuak lantzeko garaian adostasun batera iritsi ginen doakotasuna bermatzeko eta esan zitzaigun Jaurlaritzak diru laguntza atera behar zituela eta atera bitarte itxaroteko jakin ahal izateko zein baldintzetan ateratzen ziren. Laguntza horiek ez ziren atera eta ez dakigu zertan geratu den. Doakotasun horren inguruan esan da ez diola euskarari prestigioa ematen eta irakasleei ordaindu egin behar zaiela…Diru laguntza hauek emateko ez da azterketa sakona egin eta aldaketarik ez dagoen bitartean, ez ditugu onartuko."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Hitz egin genuenetik Eusko Jaurlaritzak atera zuen bere dirulaguntzak: C1 arte eta 16-35 urte tarteko ikasleek gainditzen badute doakoa da euskara ikastea. Guk gurean jarraitzen dugu eta batzordean komentatu bezala, Euskaltegia ia %94ean fondo publikoekin finantzatuta dago: HABEk eta udalak jartzen duena. Ikasleengandik %6a jasotzen dugu eta %6 horretan dirulaguntzak ematen ditugu. Pentsatu nahi dut badakizuela tasa zenbat kostatzen den. Ia ezer ez. Kontuan hartu behar da udal honek eta baita ere HABEk egiten duen esfortzua eta horri esker ateratzen den tasa kopurua. Euskarari duintasun bat eman nahi badiogu doakotasunarekin ez dugu lortuko. Horrelako praktikak badaude: Ikasturtea hasi eta ikasturte erdian utzi. Doakoa denean askotan ez da baloratzen, baina irakasleei ordaintzen jarraitu behar da. Beraz, kontuan hartuta gure Euskaltegiak %95eko finantzazio publikoa jasotzen duela eta hala ere egoera berezian dauden ikasleei (langabetu eta egoera ekonomiko gutxi dutenak), ia %100 eta

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Nosotros votaremos en contra. En la elaboración de los presupuestos se llegó a un acuerdo para garantizar la gratuidad y se nos dijo que el Gobierno iba a convocar subvenciones y que esperaríamos para saber en qué condiciones. Esas ayudas no se han publicado y no sabemos en qué han quedado. Sobre esta gratuidad se ha dicho que no prestigia el euskera y que hay que pagar a los profesores Para conceder estas subvenciones no se ha hecho un estudio exhaustivo y mientras no haya cambios, no las aprobaremos."

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Desde que hablamos, el Gobierno Vasco sacó sus subvenciones: si aprueban los examenes de nivel, para los alumnos entre 16 y 35 años estudiar euskara es gratuito hasta el nivel C1. Nosotros mantenemos lo dicho y como comentábamos en la comisión, el Euskaltegi está financiado casi al 94% con fondos públicos: lo que ponen HABE y el Ayuntamiento. Recibimos un 6% del alumnado y ese 6% lo subvencionamos. Quiero pensar que sabéis lo que cuesta la tasa. Casi nada. Hay que tener en cuenta el esfuerzo que hace este ayuntamiento y también HABE y las tasas que se obtienen gracias a ello. Si queremos dar una dignidad al euskera con la gratuidad no lo conseguiremos. Este tipo de prácticas existen: Comenzar el curso y dejarlo a mitad de curso. Cuando es gratuito muchas veces no se valora, pero hay que seguir pagando a los profesores. Por lo tanto, teniendo en cuenta que nuestro Euskaltegi recibe un 95% de financiación pública y que, sin embargo, los estudiantes que se encuentran en

%90eko dirulaguntza lortzen dutela eta beste ikasleek %50eko dirulaguntza lortzeko aukera dutela, uste dut egiten den esfortzuak erantzuten diola lortu nahi dugun helburuari."

una situación especial (parados y con una situación económica baja), obtienen casi un 100% y un 90% de subvención y los demás estudiantes tienen la posibilidad de obtener una subvención del 50%, creo que el esfuerzo que se hace responde al objetivo que perseguimos."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH bildu): "Teknikariak aipatu zuen langabetuek zein dirulaguntza jasotzen zuten eta asistentziak ez zuela eraginik izaten. Ez dut uste gure hizkuntza dagoen egoeran prestigiotaz hitz egin behar dugunik ."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "La técnica mencionó la subvención que recibían los desempleados y que la asistencia no se veía afectada. No creo que en la situación en la que está nuestra lengua debamos hablar de prestigio."

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)
Abstentzioak: 0

Votos a favor: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Votos en contra: 5 (Beasaingo EH Bildu)
Abstenciones: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo oinarriak onartu dira:

En consecuencia, se han aprobado la siguientes por unanimidad.

"EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEN ARI DIREN HERRITARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK 2023-2024 IKASTURTERAKO
ZIOEN AZALPENA
2/2016 LEGEAn, apirilaren 7koan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan, 7.2 artikuluan udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena.

Helburu hori betetzen laguntzeko, euskara ikasten duten pertsonei ikasketa horien gastuei aurrei egiten laguntzeko oinarri hauek prestatu dira honako hauek kontuan hartuta:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura gatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14)

- Beasaingo Udalaren 2023-2025erako dirulaguntzan plan estrategikoa (3. Helburuaren barruan: euskararen

*BASES PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS A LAS PERSONAS QUE ESTUDIAN EUSKARA EN LOS EUSKALTEGIS PARA EL CURSO 2023-2024* EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 2/2016 de 7 de abril de instituciones locales de Euskadli, en el artículo 7.2 atribuye a los municipios, como propia, la competencia, con las facultades y funciones que de ella se derivan, para fomentar el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial.

Al objeto de contribuir al cumplimiento de dicho objetivo y ayudar a hacer frente a los gastos derivados de los cursos de euskara se han elaborado las presentes base, teniendo en cuenta para ello:

- La Ley 38/2003 general de subvenciones y su reglamento de desarrollo, aprobado por el Real Decreto 887/2006.

- La Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones (BOG, 14/06/2018)

- El Plan estratégico de subvenciones 2023-2025 del Ayuntamiento de Beasain (objeto estratégico 3: impulsar y

ikaskuntza eta erabilera bultzatzea eta normalizatzea. 3.1. ildoa: euskararen ikaskuntza bultzatzea).

- Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin aurretik aipatutako helburua lortzen lagundu dela eta udalerriko biztanleek beren euskara maila hobetu dutela.

1.- XEDEA

2023-2024 ikasturtean euskara ikasten diharduten herritarrei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea. HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, eta horretarako HABEk ikasturtero ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

2.- FINANTZIAZIOA

Deialdi hau aldez aurretik egingo da, 2024ko ekitaldian ebatziko baita. Beraz, oinarri hauen xede diren dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.
Deialdi honetako dirulaguntzak ordaintzeko Udalak kreditua izango du aurreikusita helburu horretarako sortutako kontu-sailetan:

0230.480.335.30.01 (2024) - 15.000,0 €
0231.480.335.10.01 (2024) - 7.000,00 €
0231.480.335.10.02 (2023) - 6.000,00 €

Baimendutako gastuaren zenbatekoa (28.000,00€) handitu ahal izango du eskumena esleituta duen organoak, aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoa dela-eta, baina horrek ez du beste deialdi bat ekarriko.

3.- ONURADUNAK

Dirulaguntza hauek eskatzeko ondorengo baldintzak bete behar dira:

a) 16 urtetik gora izatea dirulaguntzako xede den ikastaroa amaitzen duten datarako.

normalizar el aprendizaje y uso del euskara, la línea 3.1: fomentar el aprendizaje del euskara).

- Se ha constatado que con la convocatoria realizada el pasado ejercicio se ha contribuido al logro del objetivo anteriormente citado y que los habitantes de Beasain han mejorado su nivel de euskara.

1.- OBJETO

Es objeto de las presentes bases regular el procedimiento de concesión de subvenciones para el curso 2023-2024 para el aprendizaje del euskara, en cursos de euskaldunización impartidos por euskaltegis o centros homologados por HABE, y que cumplan con los criterios que establece cada año HABE.

2.- FINANCIACIÓN

La presente convocatoria se efectúa de manera anticipada, ya que se resolverá en el ejercicio 2024. Por tanto, la concesión de la subvenciones objeto de las presentes bases queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.

Para la financiación de las ayudas objeto de la presente convocatoria, el Ayuntamiento dispondrá de crédito en las partidas presupuestarias creadas a tal efecto:
0230.480.335.30.01 (2024) - 15.000,00 €
0231.480.335.10.01 (2024) - 7.000,00 €
0231.480.335.10.02 (2024) - 6.000,00 €

El importe del gasto autorizado (28.000,00€)podrá ser incrementado con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia, por razón de la cuantía de la modificación sin que ello de lugar a una nueva convocatoria.

3. PERSONAS BENEFICIARIAS

Podrán optar a las subvenciones, las personas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de 16 años, para cuando finalice el curso por el que se ha solicitado la subvención.

b) Beasainen erroldatuta egotea dirulaguntzako xede den ikastaroa egiten duten bitartean.

b) Estar empadronado en Beasain durante el periodo de duración del curso objeto de subvención.

Diru laguntza hauek ezin izango dituzte jaso:

No podrán ser beneficiarias de estas subvenciones:

- Azaroaren 17an onarturiko dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsona edo erakundeak.

- Las personas en quienes concurra algunas de las circunstancias previstas en el art. 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE de 18 de noviembre de 2003)

- Norbanakoek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin dituzten zorrengatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen ez dituzten arte; salbuespen bakarra izango dela zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa bertan behera utzita egotea.

- Los/as particulares que se hallen incursos en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Beasain, ni aquellas personas que no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

- Zigor eta administrazioaren arloan dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatea, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexua dela-eta eragindako bereizkeriengatikoak barne direlarik, hain zuzen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoarekin bat etorriz.

- Quienes hayan sido sancionados/as penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o esten incursas en prohibición legal alguna que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

4.- DIRULAGUNTZA LORTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

4.- REQUISITOS PARA OBTENER LA SUBVENCION

a) Eskabidea (I. Eranskina) behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioa dagozkien epeen barruan aurkeztea.

a) Presentar la hoja de solicitud (Anexo I) cumplimentada, junto con la debida documentación dentro de los plazos correspondientes.

b) Ikastaroa amaitzerako matrikula ordainduta izatea. Ordainketaren gaineko informazioa dagokion euskaltegiak egiaztatuko du ikastaro amaierako ebaluazio txostenean.

b) Haber abonado el importe de la matrícula para cuando finalice el curso. El euskaltegi correspondiente confirmará dicho abono en el informe de valoración del final del curso.

c) Euskarazko ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia egiaztatzea. Langabetuentzako dirulaguntza eskatzaileek %90eko asistentzia egiaztatu beharko dute. Horretarako, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data hartuko dira kontuan.

c) Acreditar una asistencia mínima del 85% en el curso de euskera. Las personas solicitantes de las ayudas para desempleados deberán acreditar una asistencia del 90%. Para ello se tendrá en cuenta la fecha de inicio y finalización del curso.

5.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

5.- PROCEDIMIENTO PARA OTORGAR LA SUBVENCION

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Corresponde a la subárea de cultura, euskera y comercio la gestión de las ayudas previstas. El personal técnico del Departamento se encargará del análisis y evaluación de las solicitudes presentadas. La concesión y, en su caso, la denegación de las ayudas se realizará mediante resolución de la Alcaldía y se notificará a la persona solicitante.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez bi hilabeteko epean pertsona interesdunari hartutako erabakia jakinaraziko zaio.

Se notificará a las personas interesadas la resolución que se adopte, en el plazo máximo de dos meses una vez finalizado el periodo de presentación de solicitudes.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

- Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak), hurrengo irailean.
- Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), abenduan.

El pago se realizará en el plazo de un mes desde la Resolución de Subvención de Alcaldía.

- En el caso de los cursos de invierno (que se realizan entre octubre y junio), en el siguiente mes de septiembre.
- En el caso de los cursos de verano (que se realizan entre julio y septiembre), en diciembre.
-

6.- DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

6.- COMPATIBILIDAD DE LAS SUBVENCIONES

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan Udalari jakinarazi beharko zaio. Hala ere, ezin daiteke inolaz ere gain finantzazio kasurik izan; hau da, beste entitateekin batera diru-laguntza moduan emandako kopurua ezin da gastuaren balioa baino handiagoa izan.

Las subvenciones contempladas en estas bases serán compatibles con las concedidas por otras entidades, en cuyo caso deberán comunicarse al Ayuntamiento. Sin embargo, en ningún caso puede haber casos de sobrefinanciación, es decir, la cantidad concedida en concepto de subvención junto con otras entidades no puede ser superior al valor del gasto.

7.- DIRUZ LAGUNDUKO DEN GASTUA ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

7.- GASTO SUBVENCIONABLE E IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN

Hiru dirulaguntza mota egongo dira, eta batak besteak baztertzen ditu:

Habrá tres tipos de subvenciones, una de las cuales excluye las otras:

7.1. Dirulaguntza orokorrak:

7.1. Subvenciones con carácter general:

Dirulaguntzaren zenbatekoa honakoa izango da:

El importe de la subvención será el siguiente;

-A1, A2, B1 eta B2 mailetako ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %75.
C1 eta C2 ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %50.

- Cursos del niveles A1, A2, B1 y B2, el 75% de la matrícula abonada.
- Cursos de nivel C1 y C2, 50% de la matrícula abonada.

Dirulaguntzaren portzentajea kalkulatzeko hasiera maila hartuko da kontuan, eta ez lortutako maila.

Para el cálculo del porcentaje de la subvención se tomará en cuenta el nivel inicial y no el nivel obtenido.

7.2. Espezifikoak: baldintza ekonomikoen araberakoak .

Familia unitateko urteko diru sarrera garbiak Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) bider 1,5 baino txikiagoak diren kasuetan, dirulaguntzaren zenbatekoa HABEk homologatutako ikastaroaren matrikularen %90ekoa izango da.

Egoera ekonomikoen araberako dirulaguntza eskatzen bada, eskaeraren aurreko ekitaldian familia-unitateak jasotako urteko diru-sarrera garbiak kontuan hartuk odira.

Laguntza horien ondorioetarako, honako hauek hartuko dira diru-sarreratzat: lan etekinak, pentsioak, prestazioak eta laguntzak.

7.3. Langabetuentzako dirulaguntzak. Ikastaroak irauten duen bitartean langabezian dauden ikasleek ordaindutako matrikularen %100 jasoko dute.
Barnetegian ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.

8.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

8.1.- Guztiek aurkeztu beharrekoak:
a) Dirulaguntza eskatzeko inprimakia sinatuta. (I. eranskina)
b) Helburu honetarako dirulaguntzak jasotzeari buruzko zinpeko aitorpena.
c) Matrikula-ordainagiria. Beti ere, ez bada Beasaingo Udal Euskaltegian ikasi.
d) Euskaltegiaren ziurtagiria, ikastaroaren hasiera eta amaiera data, taldeak emandako ordu kopurua eta ikasleak hartutakoak, hasierako maila eta amaierakoa azalduko dituena. Beti ere, ez bada Beasaingo Udal Euskaltegian ikasi.
e) NAren fotokopia
f) Kontu korronte zenbakia (IBANa eta 20 zifra).
g) Huts egiteak justifikatzeko agiriak. Huts egiteak justifikatzeko ondorengo agiriak bakarrik onartuko dira:
1. LANBIDEk deitu izanaren ziurtagiria
2. Medikuarengana joan izanaren ziurtagiria

8.2. Baldintza ekonomikoen araberako laguntza espezifikoa eskatzen dutenen kasuan, eskatzailearen eta bizikidetza unitatearen

7.2. Con carácter específico: dependiendo de condiciones económicas.

En caso de ingresos anuales netos percibidos por la unidad familiar inferiores al Salario Mínimo Interprofesional (SMI) multiplicado por 1,5 el importe de la subvención será el 90% del precio de matrícula abonado por el alumno o alumna por el curso homologado por HABE.

En el caso de que se solicite valoración de la situación económica, se computarán los ingresos anuales netos percibidos por la unidad familiar, durante el ejercicio inmedidatamente anterior a la solicitud.

A los efectos de estas ayudas se considerarán ingresos: los rendimientos de trabajo, pensiones, prestaciones y ayudas.

7.3. Subvenciones para personas en desempleo. Los alumnos y alumnas que se encuentren en situación de desempleo durante el curso, percibirán el 100% de la matrícula abonada.
En el internado no se concederán ayudas para gastos de residencia.

8.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

8.1.- En todos los casos:

a) Impreso de solicitud de subvención firmado. (Anexo I)
b) Declaración jurada sobre la percepción de subvenciones para este fin.
c) Recibo de matrícula, siempre que no se haya cursado en el Euskaltegi Municipal de Beasain.
d) Certificado del euskaltegi en el que conste la fecha de inicio y finalización del curso, las horas impartidas en el grupo y las que ha recibido el solicitante, nivel de inicio y nivel obtenido. Siempre que no haya estudiado en el Euskaltegi Municipal de Beasain.
e) Fotocopia del DNI
f) Número de cuenta corriente (iban y 20 cifras).
g) Documentación justificativa de las faltas. Sólo se admitirán los siguientes documentos para justificar las faltas:
1. Certificado de llamada de Lanbide
2. Certificado de asistencia médica
8.2. .- En el caso de optar a la subvención en función de condiciones económicas, documentación que acredite su situación

egoera ekonomikoa egiaztatu beharko da ondorengo dokumentuekin:

a) Eskatzailearen eta bizikidetza-unitateko kide guztien NA fotokopiak.
b) Bizikidetza unitatea osatzen duten kide guztiek jasotako diru-sarrera garbien ziurtagiriak (10-T, Nominak, Pentsioak, etab.)
c) LANBIDEK, Enplegu Estataleko Zerbitzuak eta / edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako ziurtagiria, kasua bada, jasotako urteko prestazioen ziurtagiria edota prestaziorik jasotzen ez denarena, 16 urtetik gorako pertsonei buruzkoa.

8.3.Langabetuentzako dirulaguntza eskatzen dutenek Gizarte Segurantzako lan bizitzaren agiria aurkeztu behar dute.

8.4 Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

- Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko

económica personal y convivencial, que se acreditará con la presentación de los siguientes documentos:

a) Fotocopia del DNI de la persona solicitante y de los miembros que constituyan la unidad convivencial.
b) Certificado de los ingresos netos percibidos (10-T, Nóminas, Pensiones, etc).
c) Certificado emitido por LANBIDE, Servicio Estatal de Empleo y/o Instituto Nacional de la Seguridad Social de las prestaciones anuales percibidas, cuando se diera el caso, o de no percibir prestación, de las personas mayores de 16 años.

8.3. El alumnado en situación de desempleo deberá presentar además el certificado de vida laboral de la Seguridad Social.

8.4 Documentación interoperable y verificable.

- La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones, en el artículo 28 reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, de tal forma que la administración actuante podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que la persona interesada se opusiera a ello. Las Administraciones Públicas deben recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas habilitados para ello.

- El Ayuntamiento de Beasain forma parte del nudo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi Nisae, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para implementar el intercambio de datos electrónicos entre ellas y con el resto de las administraciones. Además de ello, el Ayuntamiento de Beasain hará uso de aplicaciones de la red corporativa foral u

aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

- Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

  a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

  b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Erakunde eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

9.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eskabideak aurkeztu ahal izango dira.

Eskatzaileak ikastaroa amaitu ondoren egin beharko du dirulaguntza eskabidea.

Epea: Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta horiek aurkezteko epea 2024ko urriaren 31n amaituko da.
Modua: Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, bertan agertzen diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: https://www.beasain.eus/bulego-birtuala edo Udalaren erregistroan, I.eranskineko ereduaren arabera.

otros sistemas que permitan la verificación y obtención de documentos.

- Los requisitos que se verificarán en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae) o de acceso público serán los siguientes:

  a) Estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

  b) Estar al corriente del cumplimiento de obligaciones tributarias, que se verificará con el departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En el caso de que la entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación.

En el caso de que la documentación presentada esté incompleta, se deberá subsanar o aportar la documentación preceptiva en el plazo máximo de diez días a contar desde el día siguiente a la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento. En caso contrario, se denegará la solicitud.

Transcurrido el plazo concedido sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistido o desistida de su petición de subvención, archivándose ésta sin más trámite.

9.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Las bases se remitirán al BDNS y las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente al de su publicación en el BOG.

La persona solicitante deberá realizar la solicitud de subvención una vez finalizado el curso.

Plazo: las solicitudes podrán presentarse desde el día siguiente al de la publicación de estas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 31 de octubre de 2024.

Modo: quienes soliciten la subvención deberán presentar el impreso de solicitud debidamente cumplimentado junto con la documentación que se recoge en el mismo. Preferentemente a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Beasain https://www.beasain.eus/bulego-

10. HELEGITEAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan."

birtuala o en el registro del Ayuntamiento según modelo del Anexo I.

10. RECURSOS

Contra las presentes bases podrá interponerse, en el plazo de un mes, recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases."

d.- IGARTZAKO MONUMENTU MULTZOKO JAUREGIA, ERROTA, BURDINOLA ETA ERMITA KUDEATZEKO ETA USTIATZEKO KONTRATUA LUZATZEA. 2019BOCU0002

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

"*AURREKARIAK:*

1. *Dagokion espedientea tramitatu ondoren, 2019ko ekainaren 17an, BEASAINGO UDALAK eta ALDABE S. COOP. PEQUEÑA enpresak Igartzako Monumentu Multzoko jauregia, errota, burdinola eta ermita kudeatzea eta ustiatzeko zerbitzua emateko kontratu administratiboa sinatu zuten.*

2. *Kontratuaren egikaritze epea, bi urtekoa da kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratuaren arabera, beste hiru urtez luzatzeko ahalmena du Beasaingo Udalak, beti ere urtez urte.*

3. *2019ko ekainaren 17an sinatutako kontratuaren egikaritze epea bi urtekoa izanda eta urtez urteko bigarrengo luzapena iraungita, Kontratua 2023ko ekainaren 16an iraungiko da.*

4. *Kultura teknikariak 2023ko martxoaren 3an luzatzearen aldeko txostena egin zuen. ALDABE S. COOP. PEQUEÑA enpresari jakinarazi zitzaion kontratua*

d.- PRÓRROGA DE CONTRATO DEL SERVICIO GESTIÓN Y EXPLOTACIÓN DEL PALACIO, MOLINO, FERRERÍA Y ERMITA DEL CONJUNTO MONUMENTAL DE IGARTZA.

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Ciudadanía:

*ANTECEDENTES:*

1. *Tramitado el correspondiente expediente, con fecha 17 de junio de 2019, el AYUNTAMIENTO DE BEASAIN y la empresa ALDABE S. COOP. PEQUEÑA suscribieron el contrato administrativo para la prestación del servicio de gestión y explotación del palacio, molino, ferrería y ermita del Conjunto Monumental de Igartza.*

2. *El plazo de ejecución del contrato será de dos años a contar desde el día siguiente a la firma del contrato. Según el contrato, el Ayuntamiento de Beasain tiene la facultad de prorrogarlo tres años más, siempre año tras año.*

3. *Siendo el plazo de ejecución del contrato firmado el 17 de junio de 2019 de dos años y extinguida la segunda prórroga anual, el contrato finalizará el 16 de junio de 2023.*

4. *La Técnico de Cultura emite informe favorable el 3 de marzo de 2023. Se*

*luzatuko zaiola azkeneko jarraipen bileran.*

5. *Herritarren batzordeak kontuan izanik luzapenak bi aldeen arteko espresuki hartutako erabakia eskatzen duela, Plenoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:*

*comunicó a Aldabe S. COOP. PEQUEÑA La prórroga del contrato en la última reunión de seguimiento.*

5. *Teniendo en cuenta que la Comisión de Ciudadanía exige un acuerdo expreso entre ambas partes, formula al Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:*

*Lehenik: 2019ko ekainaren 17an, BEASAINGO UDALAK eta ALDABE S. COOP. PEQUEÑA enpresak sinatutako kontratuaren hirugarren eta azkeneko luzapena egitea Igartzako Monumentu Multzoko jauregia, errota, burdinola eta ermita kudeatzeko eta ustiatzeko.*

*Bigarrenik: Luzapena urtebetekoa izango da, 2023-06-17tik kontatzen hasita.*

*Hirugarrenik: Kontratuaren baldintza ekonomiko bera izango dira; hau da, 74.749,00€ + IVA.*

*Laugarrenik: Alkateari baimena ematea kontratuaren luzapena sinatzeko.*"

*Primero: Prorrogar por tercer y último año el contrato del 17 de junio de 2019, contrato suscrito por EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN y ALDABE S. COOP. PEQUEÑA para la gestión y explotación del palacio, molino, ferrería y ermita del Conjunto Monumental de Igartza.*

*Segundo: la prórroga será de un año a contar desde el 17-06-2023.*

*Tercero: la condición económica del contrato será la misma, es decir, 74.749,00 €+ IVA.*

*Cuarto: autorizar al Alcalde a suscribir la prórroga del contrato."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.
Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

En consecuencia, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

**3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

a.- BEASAINGO UDALERRIKO KALE BATZUETAN IBILGAILUEN APARKALEKU ARAUTUA KONTROLATZEARI BURUZKO KONTRATUA LUZATZEA. 2019UDBO0119

Ezagutzera eman da, Lurralde batzordeko proposamena, hau da:

"*Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duen Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriaren, 8. puntuak agindutakoa betez, ematen da txosten hau.*

*AURREKARIAK*

**4.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO**:

a.- PRÓRROGA DE CONTRATO DEL SERVICIO DE CONTROL DE ESTACIONAMIENTO REGULADO DE VEHÍCULOS EN DETERMINADAS VÍAS PÚBLICAS DEL MUNICIPIO DE BEASAIN.

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Territorio:

*"El presente informe se emite en cumplimiento de lo señalado en la Disposición Adicional Tercera, 8 de la Ley de Contratos del Sector Público.*

*ANTECEDENTES*

*__I.-__ 2019-11-28. Udalbatza Osoaren erabakia lizitazio prozedura eta plegu administratibo nahiz teknikoa onartzeari buruzkoa, Beasaingo udalerriko kale batzuetan ibilgailuen aparkaleku arautua kontrolatzea lizitatzeko.*

*I.- 28-11-2019. Acuerdo plenario para aprobar el procedimiento de licitación junto con los pliegos administrativo y técnico para licitar la prestación del servicio de control de estacionamiento regulado de vehículos en determinadas vías públicas del municipio de Beasain.*

*II.- 2020-02-27. Lizitazio prozedura burutu ondoren, Udalbatza Osoak erabaki zuen, ESTACIONAMIENTOS Y SERVICIOS, S.A.U., zerbitzua esleitzea.*

*II.- 27-02-2020. Tras el correspondiente procedimiento de licitación el Ayuntamiento Pleno acordó adjudicar el servicio a ESTACIONAMIENTOS Y SERVICIOS, S.A.U.*

*III.- Ondoren, alarma-egoera deklaratu zen, eta beste enpresa lizitatzaileak (GERTEK, S.A.) kontratazio-errekurtso berezia aurkeztu zuen.*

*III.- Con posterioridad, se produjo la declaración del estado de alarma y la presentación por parte de la otra empresa licitadora (GERTEK, S.A.), de la presentación del recurso especial de contratación.*

*IV.- 2020-07-09. OARC-en 091/2020 Ebazpena, GERTEK, S.A.k aurkeztutako errekurtsoa deuseztatuz eta Udalari arrazoia emanez.*

*IV.- 09-07-2020. Resolución 091/2020 del OARC por la cual se desestima el recurso presentado por GERTEK, S.A. y se da la razón al Ayuntamiento.*

*V.- 2020-07-30. Kontratu adminsitratiboa sinatzea. Egikaritze epea: hiru urte eta bi luzapen aukera (bakoitza urte betekoa). Egikaritze epea kontatzen hasiko da dokumentu hau sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.*

*V.- 30-07-2020. Firma del contrato Administrativo. Plazo de ejecución: tres años, con posibilidad de dos prórrogas (cada una de un año) a contar desde el día siguiente al de la firma del presente documento.*

*VI.- 2023-07-30. Kontratuaren amaiera data.*

*VI.- 30-07-2023. Fecha de la finalización del contrato.*

*VII.- 2023-03-24. Baldintza-agirian eta sinatutako administrazio-kontratuan ezarritako luzapena aurreikusita, kontratuaren arduradunak luzapenaren aldeko txostena egin du, zerbitzuaren funtzionamendua egokia delako.*

*VII.- 24-03-2023. En previsión de la prórroga establecida tanto en el pliego como en el contrato administrativo firmado, el responsable del contrato emite informe favorable a su prórroga porque el funcionamiento del servicio es adecuado.*

*VIII.- 2023-03-24. Idazkariaren eman beharreko txostena eman da eta espedientea kontuhartzaileari ere pasa zaio fiskalizatzeko.*

*VIII.- 24-03-2023. Se ha emitido el preceptivo informe de Secretaria y el expediente se ha pasado a fiscalización de intervención*

*OINARRI JURIDIKOAK*

*FUNDAMENTOS JURÍDICOS*

*Kasu honetan, azaroaren 8ko 9/2017 Legea Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duena aplikatu behar da (29. artikulua).*

*En el caso que nos ocupa es de aplicación la Ley 9/2017, de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público (art. 29).*

*Ondorioz, Lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio.*

*En consecuencia, la comisión de Territorio somete a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:*

*Lehenik*. *ESTACIONAMIENTOS Y SERVICIOS, S.A.U. enpresarekin sinatutako administrazio-kontratua urtebetez luzatzea, Beasaingo udalerriko bide publiko jakin batzuetan ibilgailuen aparkaldi arautua kontrolatzeko zerbitzua emateko.*

*Primero*. *Prorrogar por un año el contrato administrativo suscrito con ESTACIONAMIENTOS Y SERVICIOS, S.A.U., para la prestación del servicio control de estacionamiento regulado de vehículos en determinadas vías públicas del municipio de Beasain.*

*Bigarrena*. *Horretarako, dagokion administrazio-agiria sinatzea, adieraziz luzapenak urtebeteko iraupena izango duela 2023-07-31tik kontatzen hasita eta 2024-07-30era arte.*

*Segundo*. *Suscribir a tal efecto el correspondiente documento administrativo, con indicación de que la prórroga tendrá la duración de un año a contar desde el 31-07-2023 y hasta el 30-07-2024.*

*Hirugarrena*. *Erabaki hau kontratistari helaraztea, kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago, aurreabisutzat balio dezan.*

*Tercero*. *Dar traslado del presente acuerdo a la contratista con dos meses de antelación a la fecha de finalización del plazo de duración del contrato, para que sirva de preaviso.*

*Laugarrena*. *Jasota uztea luzapena formalizatu ondoren beste urte bateko luzapen aukera geratuko dela."*

*Cuarto*. *Dejar constancia que tras la formalización de la prórroga, quedará la posibilidad de prorrogar por otro año más. "*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andrak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "En la comisión pregunte sobre los criterios de valoración del servicio y ya se dijo que para la nueva licitación se haría un análisis más profundo de este servicio. Estamos de acuerdo."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Luzapenarekin ados."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "De acuerdo con la prórroga."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Sometida a votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

**5.- BERRI EMATEA**:

- 2023-02-27tik 2023-03-29rarte emandako Ebazpenak.
- 2023-02-27tik 2023-03-29rarte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

**5.- DACIÓN DE CUENTA**:

- Resoluciones dictadas desde el 27 de febrero al 29 de marzo de 2023.
- Resoluciones en relación a contratos menores dictadas desde el 27 de febrero al 29 de marzo de 2023.

**6.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

En el apartado de ruegos y preguntas se han formulado las siguientes:

KALEETAN BIZI DEN EGOERA ARRISKUTSUA

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En la Junta de Portavoces de hoy ya hemos hablado de la situación de violencia que se está incrementando en Gipuzkoa. De todos es conocida la que ha sucedido en Beasain. Hoy habido una concentración para denunciar los hechos, pero no nos ha quedado claro si se está valorando o si se va a tomar alguna medida para mejorar la seguridad. Sé que en Legazpia también han tenido algún problema y desde Alcaldía se decidió instalar cámaras para vigilancia pública. No estoy proponiendo eso, pero es saber si va a haber mayor presencia policial en las calles.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Azken boladan batetik eta bestetik horrelako ekintza zikinak gehitzen aritu zaizkigu gure herrietan eta horren ondorioz da herrian bizi duguna. Gure lanketak, koordinazioa, segurtasuna bermatzea etab, berdin jarraitzen du baina egia da horrelako zerbait gertatzen eta areagotzen denean, denok antenak pizten ditugu. Ertzaintza jakitun da eta ikusiko duzue bigilantzia areagotu egin dela horrelako kasuetan gertatzen den bezala. Koordinatuta gaude Bake Epaitegiarekin, Ertzaintzarekin eta gure udaltzainekin eta saiatuko gara modu egokienean egoera hau baretzen, baina askotan ez dago bakarrik gure esku. Horrelako fenomenoak gure herrira etortzen direnean, tamalez horrelako egoerak bizi behar izaten ditugu. Aste bukaerari begira, nolabaiteko prebentzio lanak handitzen ari dira.”

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “En los últimos tiempos, por un lado y por otro, hay un incremento de este tipo de actos no deseados, y lo que vivimos en el municipio es una consecuencia de ello. Nuestro trabajo, coordinación, garantizar la seguridad, etc., sigue igual pero es cierto que cuando algo así ocurre y se intensifica, todos nos ponemos en alerta. La Ertzaintza está al corriente y como veréis la vigilancia ha aumentado como ocurre en este tipo de casos. Estamos coordinados con el Juzgado de Paz, la Ertzaintza y nuestra policía local y trataremos de calmar esta situación de la manera más adecuada, pero muchas veces no depende solo de nosotros. Cuando este tipo de fenómenos vienen a nuestro municipio, lamentablemente tenemos que vivir situaciones así. De cara al fin de semana, se están incrementando las labores de prevención.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Que se vean estos casos a la luz del día y en algunos casos se vea tanta impunidad es algo que….”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ados baina gure indarrak ez dira nahikoak eta inpunitate sentsazio hori badaukagu. Are gehiago Udalak ardurak dituenez. Baina egiten dituzten ekintzak izaeraz ez dira oso mamitsuak. Kantitate txikiko lapurretak izaten dira eta horiek legeriaren arabera bere trataera du eta tamaina horretako lapurreta asko egin behar izaten dira, horrelako gaizkile bat atxilotu ahal izateko. Hori, tamalez gure eskutik kanpo dagoen zerbait da. Denok indarrak batu behar ditugu eta bakoitzak bere esparrutik egin dezakeena egin guztion artean egoera baretzeko. Ez dago soluzio magikorik. Tarteka tokatu egiten da. Orain dela hilabete batzuk ondoko herrian ibili ziren eta azken bolada honetan hemen dabiltza.”

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “De acuerdo, pero nuestras fuerzas no son suficientes y tenemos esa sensación de impunidad. Máxime cuando el Ayuntamiento tiene responsabilidades. Pero las acciones que realizan son poco sustanciosas. Se trata de robos de poca cantidad, que según la legislación tiene su tratamiento y que requieren muchos robos de esta envergadura para poder detener a un delincuente de este tipo. Eso, lamentablemente, es algo que está fuera de nuestra mano. Todos debemos unir fuerzas y hacer lo que cada uno desde su ámbito pueda hacer para que entre todos calmemos la situación. No hay solución mágica. A ratos toca. Hace unos meses andaban el pueblo vecino y últimamente andan por aquí.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Atzo egin zen bileran datuak aipatuz gain zerbait proposatu zen, zeren

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): En la reunión que se celebró ayer, además de comentar los datos, se hizo una

eta pentsatzen dut neurri batzuk hartu beharko direla."

propuesta, porque creo que habrá que tomar algunas medidas."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Atzo izan zen 2022ko datu-irakurketa bat eta hori tendentziak ikusten dira. Somatzen da igoera bat dagoela. Ekintzak ez ziren aipatu baina. Herri batzuk, Tolosa tarteko, esan zuten Inauteriei begira egindako lanketa. Denon indarrak batu egin behar ditugu, hau da, merkatariak, ostalariak, Udala…, sentiberatzea gehitzeko eta ikusten dena salatzeko, hobetze aldera."

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Ayer hubo una lectura de datos de 2022 y ahí se ven tendencias. Se nota que hay un incremento. Pero no se mencionaron los hechos. Algunos pueblos, entre ellos Tolosa, comentaron el trabajo realizado de cara a los Carnavales. Tenemos que unir las fuerzas de todos, comerciantes, hosteleros, Ayuntamiento, para aumentar la sensibilización y denunciar lo que se ve, para mejorarlo."

DOLAREA PARKEA

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Dolarea parkeko obra egin zenetik, ondoren egiten den hirugarren interbentzioa da: Zebra bidea aldatzeko, jolas eremu inklusiboa jartzeko eta orain ureztatze-sistema jartzeko. Kontuan izan da gastatutako dirutza eta diru publikoaz ari garela, gauza hauek lehen ere aurreikusi zitekeen, beste itxura bat emateko eta ondoren horrelako interbentzioak saihesteko. Ematen du amaiera gabeko obra bat dela."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Se trata de la tercera intervención que se lleva a cabo desde la ejecución de la obra del parque de Dolarea: la modificación del paso de peatones, la instalación de un área recreativa inclusiva y ahora el sistema de riego. Teniendo en cuenta que se ha gastado una gran cantidad de dinero público, estas cosas ya se podían haber previsto antes, para dar otra imagen y evitar después este tipo de intervenciones. Parece una obra que no tiene fin."

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): "Hiru interbentzio aipatu dituzu baina zebra bidearen pintaketa ekonomikoki ez da esanguratsua. Obrak egikaritu ondoren jarraipena egin genion jakiteko trafiko segurtasun ikuspegitik arazo bat egon zitekeen edo ez. Mugikortasun planak lagundu digu baieztatzen hobekuntzarako aukera zegoela eta zentzu horretan egin da. Ureztatze-sistemarena, ados. Interesgarria izango zen bere garaian proiektuan txertatu izana. Lehenengo urtean ikusi genuen lehorte garaian belarrak sufritu egiten duela eta parke hori zorionez asko erabiltzen denez, iruditu zitzaigun berde gune horien mantenua beharrezkoa zela. Jolas inklusiboari buruz esan, ASPACEko kolektiboa gureganatu zela eta lanketa paralelo bat egin genuela. Dolareako parkearen inguruan egin zen parte-prozesuan ez zen agertu eskaera hori baina baloratu ondoren, iruditu zitzaigun balio erantsia ematen diola, batez ere uda garaitik kanpo eta hori izan zen arrazoia egikaritzeko."

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): "Tú has mencionado tres intervenciones, pero económicamente el pintado del paso de peatones no es significativo. Una vez ejecutadas las obras le hicimos un seguimiento para saber si podía haber o no un problema desde el punto de vista de la seguridad del tráfico. El plan de movilidad nos ha ayudado a confirmar que había posibilidad de mejora y se ha hecho en ese sentido. Del sistema de riego, de acuerdo. Hubiera sido interesante que en su día se hubiera incorporado al proyecto. El primer año vimos que en época de sequía la hierba sufre y como afortunadamente este parque es muy utilizado, nos pareció que el mantenimiento de estas zonas verdes era necesario. Sobre los juegos inclusivos, decir que hicimos un trabajo paralelo junto con el colectivo de ASPACE. En el proceso participativo que se llevó a cabo en el entorno del parque de Dolarea no apareció esta petición, pero una vez valorada, nos pareció que le da un valor añadido, sobre todo fuera de la época estival y esa fue la razón para llevarla a cabo."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Interbentzioak izan daitezke eragin ekonomiko gutxia dutenak baina kudeaketa aldetik ez da berdina. Uste dugu horrelakoak aurreikusi egin behar direla, ondoren jarduketa ezberdinak egiten ez ibiltzeko.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Las intervenciones pueden ser de escasa incidencia económica pero no es lo mismo en términos de gestión. Creemos que hay que preverlo para evitar que después se tengan que realizar diferentes actuaciones.”

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, gaueko zortziak eta hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las diecinueve horas y cincuenta minutos, de lo cual como Secretaria  doy fe extendiéndose la presente acta.